



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

FAMILIA EREDU BERRIAK GAUR EGUNGO ESKOLAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Villahoz Vaqueiro, Paola.

ZUZENDARIA: Fernández Aragón, Iraide.

2019/2020

ESKERRAK

Lehendabizi, lan honetan erreferente izan den Iraide Fernández Aragón tutoreari eskertu nahi diot, bere laguntza eta arduragatik. Bere ikuspuntua, ezagutzak eta lan egiteko modua ezinbestekoak izan dira ibilbide honetan. Modu berean, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakasleei, lau urte hauetan nire etorkizuneko lanbiderako ezagutzak transmititzeagatik; ikaskideei, haien esperientzia eta hausnarketengandik asko ikasi dudalako. Baita nire praktiketako irakasleei ere, eszenatoki erreal batean haien esperientziak eta estrategiak erakustean irakatsitako guztiagatik eta nireganako konfiantza izugarria adierazteagatik.

Azkenik, nire familiari, sostengu leiala izateagatik eta egunez egun ematen didaten maitasuna, balore eta motibazioagatik. Nire familiaren parte diren lagunei ere, urteetan zehar nirekin batera hazteagatik. Dударik gabe, gaur egun naizen neska ez da Haur Hezkuntzako Gradua hautatu zuen neska berdina, aipatu dudan pertsonak nire identitate pertsonala eta profesionala garatzen lagundu baitidate. Haiei guztiei, eskerrak.

LABURPENA

Umearen heziketan familia eta eskola ezinbesteko funtzioa betetzen dute, arlo emozional zein akademikoan. Eskolan familiaren gaia lantzen da, baina urteetan zehar ez da haren ikuspegia aldatu eta hurrek familia tradizionalaren eredua barneratzen dute txikitatik. Hauek ordu asko egiten dituzte eskolan, eta errespetatuak eta onartuak sentitzeko ezinbestekoa da haien familia baloratzea. Beraz, premiazkoa izan beharko litzateke irakasleek haur bakoitzaren errealitatea eta familiaren egoeraren berri izatea, horrela gelan presentzia eman ahal izateko, aniztasuna eta errespetua helaraziz.

Gratu Amaierako Lan honen helburua gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan sortu diren familia eredu berrien presentzia eta ezaugarriak aztertzea, eta bereziki Haur Hezkuntzan, nolako trataera duten ikertzea da. Horrez gain, familia eredu berriak deskribatuko dira, eta hurrek familiaren inguruan duten irudia, gaiaren lanketa eta emakumearen rola nolakoa den aztertuko dira.

Metodologiari dagokionez, aipatutako helburuak lortzeko lehenik eta behin, teoria eta datu objektiboak lortzeko iturri biografikoak eta estatistikoak erabili dira. Familiaren gaiaren inguruko informazioa izan ondoren, eskola batean gauzatutako behaketaz, elkarrizketetaz, ekintzetaz, txantiloiaz eta materialen azterketaz baliatuz, berezko emaitzak lortu dira.

Aztertutako eskolaren inguruan lortutako emaitzak interesgarriak izan dira; eskola honetan familia eredu aniztasuna dagoela esan daiteke, baina familia gehiengoan eredua tradizionala da. Emakumeen rola genero rolei lotuta dagoela ikusi da nahiz eta emakume gehienak landunak izan, eskolako ama gehienak etxeko lanak eta hurren ardura daukate. Gainera, eskolako materialei dagokienez, zaharkituak daude eta genero desberdintasuna eta familia eredu bakarra islatzen dute. Gainera, irakasleriak ez du aniztasuna bermatzen, ezta familia eredu berriak dituzten hurrek errespetatzen ere. Izan ere, eskola inklusiboa lortzeko, aniztasuna eta errespetua bezalako baloreak ezinbestekoak dira.

Laburbilduz, iturri biografiko eta estatistikoak eta ikastetxeko ikerketatik ateratako ondorioak aztertuta, familiaren gaiaren eta haren irakaskuntzaren egungo ikuspegia eman nahi da.

RESUMEN

La familia y la escuela desempeñan un papel fundamental en la educación del niño, tanto a nivel emocional como académico. En la escuela se trabaja el tema de la familia, pero a lo largo de los años no ha cambiado su visión y los niños y niñas interiorizan desde pequeños el modelo de la familia tradicional. Estos realizan muchas horas en la escuela y para sentirse respetados y aceptados es imprescindible valorar a su familia. Por lo tanto, es necesario que los profesores y profesoras conozcan la realidad de cada niño y su situación familiar, para así poder dar presencia en el aula, transmitiendo diversidad y respeto.

El objetivo de este Trabajo Fin de Grado es analizar la presencia y características de los nuevos modelos de familia en la Comunidad Autónoma Vasca, en especial en Educación Infantil. Además se describirán nuevos modelos de familia y se analizará la imagen de los niños en torno a la familia, el tratamiento del tema y el papel de la mujer.

Metodológicamente, para la consecución de los citados objetivos se han utilizado en primer lugar fuentes biográficas y estadísticas para la obtención de teorías y datos objetivos. Tras disponer de información sobre la familia, aprovechando la observación, entrevistas, actividades, una plantilla y análisis de materiales realizados en una escuela, se han obtenido resultados propios.

Los resultados obtenidos en torno a la escuela analizada han sido interesantes; en esta escuela se puede decir que hay diversidad de modelos de familia, pero el modelo de familias mayoritarias es tradicional. Se ha observado que el rol de las mujeres está relacionado con los roles de género; aunque la mayoría de las mujeres son trabajadoras, la mayoría de ellas se encargan de las tareas domésticas y de cuidado de los niños. Además, en cuanto a los materiales escolares, están obsoletos y reflejan desigualdad de género y un único modelo de familia. Además, el profesorado no garantiza la diversidad ni respeta a niños y niñas con nuevos modelos familiares. Y es que para lograr una escuela inclusiva son imprescindibles valores como la diversidad y el respeto.

En definitiva, analizando las fuentes biográficas y estadísticas y las conclusiones extraídas de la investigación del centro, se pretende aportar una visión actual del tema de la familia y su enseñanza.

ABSTRACT

The family and the school play a fundamental role in the child's education, both emotionally and academically. At school, the subject of the family is worked on, but over the years its vision has not changed and children internalize the traditional family model from an early age. They spend many hours in school and in order to feel respected and accepted it is essential to value their family. Therefore, it is necessary for teachers to know the reality of each child and their family situation, in order to be able to give presence in the classroom, transmitting diversity and respect.

The aim of this End of Degree Project is to analyse the presence and characteristics of the new family models in the Basque Autonomous Community, especially in Infant Education. In addition, new family models will be described and the image of children around the family, the treatment of the subject and the role of women will be analysed.

Methodologically, in order to achieve the above-mentioned objectives, biographical and statistical sources have been used in the first place to obtain objective theories and data. After having information about the family, taking advantage of observation, interviews, activities, a template and analysis of materials carried out in a school, own results have been obtained.

The results obtained about the school analyzed have been interesting; in this school it can be said that there is a diversity of family models, but the model of majority families is traditional. It has been observed that the role of women is related to gender roles; although most women are workers, most of them are in charge of domestic and childcare tasks. In addition, school materials are outdated and reflect gender inequality and a single family model. Moreover, teachers do not guarantee diversity or respect children with new family models. Values such as diversity and respect are essential to achieving an inclusive school.

In short, by analysing the biographical and statistical sources and the conclusions drawn from the school's research, the aim is to provide a current view of the subject of the family and its teaching.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	7
2. Justifikazio pertsonala eta akademikoa	7
3. Helburuak eta metodologia	8
4. Marko teorikoa	10
4.1. Definizioa, eboluzioa eta gizartearen aldaketak	10
4.2. Sozializazio prozesua: familiaren eragina errendimenduan	15
4.3. Familia ereduak	17
4.4. Familiaren eginkizunak	20
4.5. Familia ereduak literaturan	21
5. Gaur egungo familiaren argazkia	23
6. Emaizak	27
6.1. Zentroaren deskribapena	28
6.2. Emakumearen rola	31
6.3. Familiaren lanketa klasean	37
6.4. Irakaslea	41
7. Ondorioak	43
8. Mugak eta etorkizuneko ikerketa-ildoak	46
9. Erreferentziak	47
10. Eranskinak	50
10.1. 1. Eranskina: Dimentsioen txantiloia	50
10.2. 2. Eranskina: Familiaren marrazkiak (bost urteko gela)	51
10.3. 3. Eranskina: Ipuinak	53
10.4. 4. Eranskina: Familia ereduaren argazkiak eta haurren iruzkinak	54
10.5. 5. Eranskina: Haur baten marrazkia	55
10.6. 6. Eranskina: Erljio klaseko fitxa	56

1. SARRERA

Familia instituzio garrantzitsuenetariko bat da, gizarte guztietan dagoena, baina modu desberdinetan eratuta. Oro har, familia pertsonak gizartearekin lotzen dituen erakundea da, eta funtsezko funtzioak betetzen dituena.

Haur baten haurtzaroan familiak eta eskolak parte hartzen duten bi erakunde garrantzitsuak dira. Izan ere, haurarentzat garapen integrala eta arrakastatsua lortzeko elkarrekin lan egin behar dute. Haur Hezkuntzan bereziki, oso garrantzitsua da haurarentzat haien familia, hortaz, etapa honetan, bere lanketa ezinbestekoa da. Familia gai unibertsala dirudien arren, oso konplexua da eta garatzen doa gizartearen arlo soziokulturalarekin batera.

Gaur egungo gizartean, hezkuntza inklusiboa izan behar da. Unibertsitateko prestakuntzan, bereziki azpimarratu da hezkuntza inklusiboaren beharra, irakasle gisa etorkizunean funtsezko helburua delarik. Egia da, familiaren gaia eskola gehienetan lantzen dela, baina normalean modu berdinean: irakasleek ama, aita eta seme-alabek dituzten familietan oinarritzen dira eta hauek eredutzat erabiltzen dituzte, gaur egungo gizarteak duen aniztasuna kontuan hartu gabe. Modu horretan, haurrek ez dituzte familia eredu desberdinak ezagutzen eta gainera, gerta liteke eskolan familia eredu berriko haurren bat egotea eta horrekin identifikatuta ez sentitzea. Azken kasu honetan, premiazkoa da irakasleek ikasleen familia ereduak zein den jakitea, haien errealitatea ulertzen laguntzeko.

Hori horrela, familiak duen garrantzia kontuan hartuz, interesgarria da Gradu Amaierako Lan honetan haren inguruan haztatzea, familia eredu desberdinak, hezkuntzan gai hori lantzeko erabilitako materialak eta behatutako egoera desberdinak aztertuz.

2. JUSTIFIKAZIO PERTSONALA ETA AKADEMIKOA

Pasa den urtean, nire bigarren Practicum-ean, gelan subrogazioaren bidez sortutako familia bateko ume bat zegoen. Haurduntza subrogatuan, kontratu bat eginez, emakume batek, gehienetan pobrea, normalean diru konpentsazio baten truke beste pertsonen umea sabelean hazten du, eta erditze ondoren, umea, ordaindu dion familiari ematen dio.

Nire gelan zegoen haurra bere aita eta aiton-amonekin bizi zen. Familiaren inguruko proiektu bat egin zuten, eredu tradizionalari buruzkoa. Irakasleek ez zuten gela horretan zegoen aniztasuna kontuan hartu eta haurrei soilik familia eredu bat erakutsi zieten. Egoera hori, gaiaren inguruan hausnartzera bideratu ninduen eta interes handia sortu zitzaidan.

Haur Hezkuntzako 4. mailan egonda, praktikaldietan familiaren gaia hainbat aldiz nola lantzen den ikusi dut. Alde batetik, zuzenean, honen inguruan gauzatutako proiektu baten bitartez; bestetik, zeharkako eran, adibidez liburuetan edo egunerokotasuneko elkarrizketetan irakasleek haurrei ama eta aitaren familia eredua behin eta berriro errepikatzean. Hortaz, aztertu nahi dut zer nolako material edo elkarrizketak dauden familien inguruan.

Gaur egungo gizartean familia eredu anitzak ikus ditzakegu, baina, eskoletan familia eredu berri horiek presentzia al dute? Haur Hezkuntzan umeentzat oso garrantzitsua da familia, haien nortasuna eraikitzeke beharrezkoa baita. Haurrak eskolan baloratuta sentitzeko haien familiak errespetatuak izan behar dira. Gainera, familia gure gizartearen instituzio garrantzitsuenetariko bat da, hortaz, haren lanketa on bat ezinbestekoa iruditzen zait. Batetik, garrantzitsua da, gizarte osoarentzat familia-erakundean gertatzen diren aldaketak aztertzea, hau da, familiaren argazki soziala eguneratzea. Hezkuntza-sistema gizarte horren parte da, eta, ondorioz, ikerketa horren onuradun izan daiteke. Bestetik, maila pertsonalean, horrelako egoerei aurre egiten lagunduko dit nire etorkizuneko lanean, interesgarria baita hezkuntzako profesional gisa eta irakaskuntzaren funtzioaren ikuspegitik. Gainera, nire ustez, etikoa eta bidezkoa da curriculum akademikoan gizartean dauden familia-mota guztiak sartzea, berdintasunean hezteko eta hezkuntza inklusiboa izateko.

3. HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Lan honen helburu orokorrak hezkuntza eta familia instituzioa batzen ditu. Hori horrela, helburua honako hau da: gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan sortu diren familia eredu berriak eta hezkuntza sisteman, zehazki Haur Hezkuntzan, nola islatzen diren aztertzea izango da.

Horrez gain, garrantzitsua ikusten dut hainbat helburu zehatz mugatzea. Lehenik eta behin, familia eredu berriak deskribatzea. Gaur egungo gizartean, gero eta familia eredu

gehiago daude eta premiazkoa da guztiak ezagutzea. Bigarrenik, haurrek duten familia ereduaz aztertzea. Haurrek familiari buruz duten ikuspegia behatu nahi da, honen ereduak ezagutzen badituzte edo bakarrik familia tradizionala ezagutzen duten. Bestalde, hurrekin nola lantzen dugun familiaren gaia. Horretarako, bi alderdi aztertu behar dira: honen inguruko materialak eta irakasleen kudeaketa nolakoa den. Azkenik, emakumearen rola familia eredu desberdinetan nolako den aztertzea izango da. Haurrek haien familiako kideak nola ikusten dituzten ikusiko dugu. Beraz, lan honen helburu zehatzak hurrengo hauek dira:

- I. Familia eredu berriak deskribatzea.
- II. Haurrek duten familia ereduaz aztertu.
- III. Hurrekin nola lantzen dugun familiaren gaia (materialak eta irakaslearen kudeaketa).
- IV. Emakumearen rola familia eredu desberdinetan nolakoa den aztertzea.

Deskribatutako helburuak betetzeko erabiliko dudan metodologiaren barnean, 3 fase bereiz daitezke. Lehendabizi, iturri bibliografikoen analisia, familia eredu berrien gaian murgiltzeko adituen jakintza erreparatzea eta erabiltzea beharrezkoa baita. Bigarrenik, iturri estatistikoen analisia, gizartea nola aldatu den ikusteko eta gaurko egoera ezagutzeko, Eustat-en familiaren inguruko datuak aztertuz. Azkenik, eskola batean gauzatutako behaketa sistematiko bat, behaketaren bidez lortutako datuak ofizialekin konparaketa egitea interesgarria kontsideratuz.


Behaketa sistematikoa lehen eskuko datu berriak biltzea ahalbidetu duen teknika izan da. Azaroan egin zen, Haur Hezkuntzako ikasleekin egindako praktikan. Behaketa honetan datza: "La descripción sistemática de eventos, comportamientos y artefactos en el escenario social elegido para ser estudiado". Teknika horri esker hainbat datu mota jaso eta eskuratu daitezke, "Desiragarritasun sozialaren" eragina murriztuz (Marshall eta Rossman, 1989). Behatutakoa sistematikoki jasotzeko, beharrezkoa da erregistro bat eramatea, ikertzaile bakoitzak egiten duen txantiloia baten bidez.

Egindako txantiloian hainbat dimentsio aztertu dira bi bloketan bananduta. Alde batetik, haur bakoitzaren informazioa jasoko da. Kasu honetan, dimentsioak pertsonalak dira: haur bakoitzaren familia ereduaz zein den, haurrek ezagutzen dituzten familia eredu ezberdinak eta haien familian zein den emakumezkoen rola. Bestetik, gela osoa biltzen dituzten dimentsioak daude: familiaren lanketarako erabiltzen diren materialek

aniztasuna bermatzen duten ala ez jakiteko eta irakasleak erabiltzen dituen estrategiak ezagutzeko. Gainera egonaldian zehar bizitako esperientziak, egindako ekintzak eta tutoreekin izandako elkarrizketak oso baliagarriak izan dira datuen bilketarako.

Laburbilduz, jarraian eskema bat aurkezten da (1. Eskema), aipatutako helburu bakoitza horiek betetzeko erabiliko den metodologiarekin lotzen duena.

1.Eskema. Helburuak eta metodologia



Iturria: Egileak egindakoa.

Eskeman ikus dezakegun bezala, lehen helburu espezifikoak (familia eredu berriak deskribatzea) bigarren mailako iturrien analisiarekin ikertu da: bibliografikoak eta estatistikak. Zehazki, Eustat emandako datuekin. Bigarren eta hirugarren helburuak (haurrak duten familia ereduak eta haiekin familiaren gaia nola lantzen den aztertzea) ikerketa-teknika berberekin gauzatu dira, baina helburuaren arabera xehetasun desberdinak azpimarratuz. Teknika horiek, 1. eskeman ikus daitezkeen bezala, behaketa sistematikoa gelan eta irakaskuntzan erabilitako materiala aztertzea izan dira. Azkenik, nahiz eta laugarren helburu zehatza zeharkakoa den, (emakumearen rola familia eredu desberdinetan nolakoa den aztertzea) elkarrizketak, txantiloia eta behaketa erabili dira betetzeko.

4. MARKO TEORIKOA

4.1 Definizioa, eboluzioa eta gizartearen aldaketak

Gratu Amaierako Lan honen gai nagusia familia da eta honen azterketa sakona eskatzen du. Lehenengo helburu zehatzari dagokionez (familia eredu berriak deskribatzea), familia-erakundean eman diren aldaketak eta eredu berriak deskribatu dira. Lehenengo urratsa instituzio honek dituen definizio desberdinak aztertzea izan da haren zehaztapenak argitzeko.

Diccionario de la Real Academia Española (DRAE)-ren aburuz, familiaren lehenengo lau adierak hauek dira: 1. *elkarrekin bizi diren ahaideen taldea*, 2. *aurreko, ondorengo, alboko eta antzeko ahaideen multzoa*, 3. *seme-alabak edo ondorengoak* eta 4. *baldintza, iritzi edo joeraren bat duten pertsonen multzoa* (DRAE, 2019). Euskaltzaindiaren hiztegia ez da DRAE-ren sarreratik asko aldutzen, honako definizioa proposatzen duelarik: ahaidetasun hurbilak lotzen dituen lagunen multzoa, berez etxe berean bizi direnena; bereziki, gurasoek eta seme-alabek osatzen dutena, seme-alabak, leinua edo nolabaiteko loturak elkartzen dituen lagunen multzoa (Euskaltzaindia, 2019).

Definizio hauek familia tradizionala bere baitan hartzen dute, ikuspegi biologikotik, gaur egungo familien aniztasuna kontuan hartu gabe. Beraz, Espainiar zein Euskal Akademia errealek ez dute gaur egungo gizartearen familien errealitatea islatzen.

Eustat-eko definizioa, aldiz, gaur egungo familia mota batzuen ezaugarriekin bat egiten du eta hainbat familia moten ezaugarriak hartzen ditu bere baitan. Hori horrela, definizio hau gizartearen errealitatearekin bat egiten du, salbuespenak salbuespen. Aurrerago ikusiko den bezala, pertsona bakar batek familia bat sortu dezake (pertsona bakarreko guneak), bikoteak ez dira nahitaez ezkontuta egon behar eta familiako kideak etxe desberdinetan bizi daitezke (izatezko bikoteak) (Eustat, 2020):

“Familia pertsona multzo bat da; oro har, pertsona horiek ahaidetasun-harremana izaten dute euren artean, odolezkoa edo ezkontzaren ondoriozkoa (gradua gorabehera), eta elkarrekin bizi dira etxebizitza berean. Etxebizitzan lo egiten duten mirabeak eta familia erregimenean dauden ostalariak ere familia barruan sartzen dira. Halaber, bakarrik eta pertsona bakarreko familia gisa bizi diren pertsonak ere sartzen dira definizio honetan” (Eustat, 2020).

Familiaren definizio garrantzitsuena estatuak ematen duena da. Alde batetik, konstituzioak, 32. artikuluan gizonak eta emakumeak berdintasun juridiko osoz ezkontzeko eskubidea dutela dio. Baina sexu berdineko pertsonen arteko ezkontzak ez ditu zehazten. Gainera, legeak ezkontzeko moduak, ezkontzeko adina eta gaitasuna, ezkontideen eskubide eta betebeharrak, banandu eta desegiteko arrazoiak eta horien ondorioak arautuko dituela aitortzen du (Espainiar konstituzioa, 1978). Beraz, konstituzioak familiak osatzeko abiapuntu bezala ezkontza zehazten du, abiapuntu hori adostasuna izan daitekeela kontuan hartu gabe. Ondorioz, herritarrak ez dira guztiz libre haiek nahi duten familia osatzeko. Horretaz gain, 39. artikuluan zehazten du botere

publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa bermatzen dutela (Espainiar konstituzioa, 1978). Izan ere, haien aburuz, familiazat soilik familia tradizionala kontuan hartzekotan, beste familia ereduak babesgabeak daude:

“Artículo 32

1. El hombre y la mujer tienen derecho a contraer matrimonio con plena igualdad jurídica.
2. La ley regulará las formas de matrimonio, la edad y capacidad para contraerlo, los derechos y deberes de los cónyuges, las causas de separación y disolución y sus efectos.

Artículo 39

1. Los poderes públicos aseguran la protección social, económica y jurídica de la familia.
2. Los poderes públicos aseguran, asimismo, la protección integral de los hijos, iguales éstos ante la ley con independencia de su filiación, y de las madres, cualquiera que sea su estado civil. La ley posibilitará la investigación de la paternidad.
3. Los padres deben prestar asistencia de todo orden a los hijos habidos dentro o fuera del matrimonio, durante su minoría de edad y en los demás casos en que legalmente proceda.
4. Los niños gozarán de la protección prevista en los acuerdos internacionales que velan por sus derechos.” (Espainiar konstituzioa, 1978).

Beste aldetik, Kode Zibilak familia ahaidetasun batek elkartutako pertsona fisikoen multzoa bezala definitzen du (Espainiako kode zibila, 1889). Beraz, definizio honek ere ez du gaur egungo familiaren kontzeptuarekin bat egiten.

Hau guztia kontuan hartuz, familia guztiek errespetatuta eta babestuta sentitu daitezten, ezinbestekoa da dokumentuetatik eta hiztegietatik familiaren definizioa errealitateara berritzea, familia eredu guztiak bere baitan hartzea eta familiaren definizio zabala sortuz.

Aurrekoaren ildora, familiak gizartearen oinarritzko gunea izaten jarraitzen du. Baina kontuan izan behar dugu izan duen eboluzioa. Duela 150 urte, familia ez zen ulertzen XX. mendeko azken hamarkadetan bezala. Familiaren kontzeptua aldakorra izan da eta urteak pasa ahala, gizartearen eboluzioa eman den heinean, kontzeptu hori garatuz joan da. Historian zehar, hainbat psikologo, antropologo, historialari edota soziologo familiaren inguruko errealitateari buruzko ikerketak gauzatu dituzte.

XIX. mendearen hasieran, Hegel filosofoa familia espiritu objektiboaren irudi gisa ulertzen saiatu zen, gizakien sentimendu boteretsuenetako batzuk adierazten eta jasotzen dituen prozesu baten emaitza gisa. Orokorrean, haren aburuz, familia maitasunaren arabera zehazten zen, ezkontideen arteko maitasunari buruzko aipamena bere unitatearen oinarria zela (Hegel, 1998).

Aurreko mendean, familiaren instituzioa asko aldatu zen. 50eko hamarkadan, ikertzaileen familiari buruzko lehen ekarpenak egin ziren. Oro har, Lévi-Strauss, hamarkada honetan familiaren jatorria ezkontza zela esaten zuen. Gainera, familia bat osatzeko kideak senarra, emazte eta ezkontzatik sortutako seme-alabak behar zirela azaltzen zuen. Era berean, lotura legalak, eskubide eta betebeharrak ekonomikoak, erlijiosoak edo bestelakoak zituzten, baita eskubide eta debeku sexualak eta lotura psikologikoak (maitasuna, afektua, errespetua eta beldurra) ere (Lévi-Staruss, Spiro, eta Gough, 1974).

Geroago, 70ko hamarkadan, Gough-en aburuz, bikotea ahaide helduak ziren, bizitza ekonomikoan, seme-alaben hazkuntzan eta heziketan laguntzen zutenak eta horretarako, gehienek bizileku komuna erabiltzen zuten (Lévi-Staruss, Spiro, eta Gough, 1974). M.J. Rodrigo eta J. Palacios-ek 1998an familia bizitza osorako proiektu bera duten pertsonen elkarketa bezala definitu zuten, iraupen luzekoa izan nahi zuena eta kideen artean sentimendu sendoak sortzen zituena (Rodrigo eta Palacios, 1998). Talde horretako kideen artean konpromiso pertsonala dagoela esaten zuten eta intimitate-, elkarrekikotasun- eta mendekotasun-harreman sendoak ezartzen zirela. Hiru urte geroago, aditu bikote honek familia kontzeptuaren muina pertsona elkarketa zela azaldu zuten (Rodrigo eta Palacios, 2001).

Beraz, logikoa den bezala, azken hamarkadetan familiaren egiturak, baloreak eta rolak aldatuz joan dira. 50eko hamarkadan, aipatu bezala, familia emakume eta gizon batzuen arteko ezkontza bezala ulertzen zen eta mendearen amaieran Rodrigo eta Palacios-ek aipatu bezala, familia bizi proiektutzat hartzen da, konpromiso pertsonal batez oinarrituta (Rodrigo eta Palacios, 1998).

Familia garatzen doa arlo soziokulturalarekin batera. Horregatik, gizartearen aldaketek familiaren eboluzioan eragina dute. Urteak pasa ahala, familia gizartearekin batera aldatzen doa, Lucía Aguadok hainbat aldaketa soziologikoen eragina aztertutako zituen familia ereduetan. Lehena, gero eta jende gutxiago ezkontzen dela da, azken

hogeita bost urteotan ezkontza kopurua beherakada izan baitu. Gero eta bikote gehiago elkarrekin bizitzen dira ezkondu gabe eta gainera, sexu bereko bikoteak onartuagoak daude. Halaber, nahiz eta gaur egungo harremanak atseginoak izan, denbora gutxiago irauten dute beraz, dibortzio gehiago daude (Aguado, 2010a).

Bigarrenik, balore berriak agertzen ari dira. Hala nola, askatasuna, autonomia eta negoziazioa. Poliki-poliki patriarkatua, gizonaren autoritatea eta emakumearen mendetasuna desagertzen ari dira eta emakumearen lana etxetik kanpo hedatu da. Horrela, etxeko lanak eta seme alaben zaintza eta ardura bi gurasoen artean banantzeko beharra sortu da (Aguado, 2010a).

Familia dinamikak asko aldatu dira, oso interesgarria da Gerardo Meill-ek zehaztutako “familia negoziatzailea” edo demokratikoa (Meill, 2006). Gaur egungo familia holakoa da, komunikazioan eta elkarbizitza-arau malguekin bizitzen dira. Are gehiago, familiaren proiektu komunean oinarrituta dago eta pertsonen askatasuna bilatzen du. Aspaldiko familietan, aitak irudi autoritarioa zuen baina gaur egun hori aldatu da. Orain, bi guraso egotekotan autoritatea biek konpartitzen dute eta hurrekin negoziatu egiten da (Aguado, 2010a).

Hirugarrenik, jaiotza tasa behera egin du eta familiek seme-alabak gero eta beranduago izaten dituzte. Gero eta familia gehiago daude, baina txikiagoak dira eta ezaugarri anitzekin. Azken hamarkadan, gero eta familia ugari gutxiago daude eta gurasobakar gehiago. Azken urteotan ematen ari diren jarrerak, Europan gertatutakoen antzekoak dira (Aguado, 2010a).

Orokorrean, bikoteak ez direla lehen bezala ezkontzen esan daiteke, ume gutxiago izaten dituztela eta emakumeek etxetik kanpo lan egiten dutela eta helburu berriak dituztela, nahiz eta batzuetan familia bizitza eta lana bateratzea zaila izan. Horrekin batera, gero eta familia gehiagotan etxeko lanak emakumeek eta gizonak egiten dituzte eta gizonak haurren hezkuntzan eta zaintzan gero eta erantzukizun gehiago daukate eta etxean eta bizikidetzan moduetan aniztasuna sortzen ari da. Hots, familian funtzio berriak zehazten ari dira (Aguado, 2010a).

Aipatutako familiaren berregituraketa guztiak, logikoa denez, gizartean eragina izan dute. Bolibarrek dio familiako aldaketa horiek eragina izan dutela, nola ez, familiak betetzen dituen funtzioetan eta eskola eta gizartearekiko harremanean. Badirudi gurasoak krisian sartu direla, ez dakite zer den seme-alaben heziketarekin lortu nahi dutena eta familiak oinarritzko egitura eta sozializazio-funtzioa galtzen hasi dira. Lehen

argi zegoen eskolak irakasteko funtzioa zuela eta familiak hezitzekoa, baina gaur egun, eskola biak betetzen ari da, eta gainera, testuinguru jakin batzuetan, sozializazio primarioko alderdietan prestakuntza hartzera behartuta dago (Bolibar 2006, 121. or.).

4.2 Sozializazio prozesua: familiaren eragina errendimenduan

Ezinbestekoa da familiaren azterketan egiteko bidean sozializazioa aipatzea. Sozializazioa gizabanakoek komunitate bateko ohiko bizimoduak ikasteko eta barneratzeko prozesuari deritza. Honen bidez, pertsona gizatiartu egiten da eta ikasten du zenbait instituzioetan bete behar duen rola, adibidez, familian. Gizabanakoak jarrera komunak eta gizartean normalak diren arauak barneratzen ditu eta hauek bere nortasunaren egituraren eragina daukate (Taberner, 2009).

Hautzaroan lehen mailako sozializazioa ematen da eta familiak ezinbesteko funtzioa betetzen dute. Sozializazio lehen maila hau osagai afektibo, emozional, normatibo eta kognitiboan barneratze goiztiarra da. Prozesu hau modu egokian betetzeko, ezinbestekoa da umea giro emozional egokian hezitzea eta harreman egonkorra izatea gutxienez zaintzen duen heldu batekin (Taberner, 2009).

Sozializazio prozesua zenbait agentek baldintzatzen dute. Haien artean familia eta eskola gizabanakoak heztearen helburu bera dute. Familiak, gizabanakoaren behar fisikoei eta premia psikologikoei erantzuteko ardura du. Halaber, familia-dinamikek zehaztuko dute pertsonaren bilakaera, nortasunari dagokionez, zein ezagutza eta portaerari dagokionez. Eskola, aldiz, haurrak etapa akademikoa hasten duenean, agente sozializatzaile esplizitu nagusi bihurtzen da. Eskolak egunero berdinen arteko harremanak izateko aukera ematen du, eta haurra gizarteak dituen jokabide eta besteen pentsaeran desberdintasunetaz ohartzen da (Taberner, 2009).

Eskola, Curriculumean oinarritzen da, haur guztiek garapen integrala lortzeko erabiltzen duten dokumentu komuna dena. Heziberri dokumentuan ez da familiaren arloan zehaztaperen handirik ematen; 29. Artikuluan, konkretuki, bost kontzeptu zehazten dira familien lankidetzaren, inplikazioa eta prestakuntza bermatzeko. Laburbilduz, gurasoen haurren eskolako hezkuntzaren jarraipena egiteko, bertan parte hartzeko eskubidea dute eta konpromisoak hartu behar dituztela, hala nola, ikastetxeko hezkuntza-printzipioak onartzea, familiaren ideologia eta morala errespetatzea legeetan ezarritako

hezkuntza-printzipioen eta balioen arabera, etab. Halaber, ikaslearen hezkuntza- edo bizikidetzatza-prozesua hobetzeko, ikastetxeak eta familiak, hasierako konpromisoak aldatzeko akordioetara iritsi daitezke. Gainera, absentismoa saihesteko, ikastetxeek familien laguntza behar izango dute eta azkenik, familien parte hartzea egon dadin ikastetxeek eta guraso-elkarteek prestakuntza jarduerak antolatu ahal izango direla zehazten du (Eusko Jaurlaritzak, 2016). Curriculum ofiziala ez da geletan agertzen den bakarra, Curriculum ezkutua ere kontuan hartu behar da. Curriculum honek jarrera eta baloreekin lotutako ideia, aurreiritzi, esperientzia edo pentsaera dira egunerokotasunean ikasten eta nahigabe transmititzen direnak. Beste era batean esanda, irakasleak ikasleei nahi gabe transmititzen dizkien ideiak eta baloreak dira.

Askotan, familiak lehenengo sozializazioan bere eginkizuna eskolari uzten dio, baina eskolak ezin du hutsune hori bete, familiak eskaintzen duen harreman estu eta afektibo positiboa guztiz beharrezkoa baita (Taberner, 2009). Jaiotzetik umearen garapen-eremu hurbilena familia da, bertan dena hasten delako: bere lehenengo hezkuntza esperientziak, ezagutzak, atxikimenduak... Familiako kideen elkarreragin afektiboak haurraren gaitasunak eta haren ongizate emozionala erabat garatzeko alderdirik funtsezkoenak dira, bereziki gurasoen papera. Hau guztia ezin du eskolak ordezkatu.

Aipatutakoa kontuan hartuta, familia eta zentroaren arteko harremana ona izatea ezinbestekoa da; lankidetzatza eta laguntza ezinbestekoak dira familia zein eskolarentzat, baina konplexua eta zaila ere bada. Gaur egun, harreman horiek ez dira berez gertatzen, hortaz, biek lankidetzatza horren ezinbestekoaz kontzientziazatzea, eta lankidetzatza hori gauzatzeko neurriak eta proposamenak bilatzea beharrezkoa da. Aguadok adierazten zuenez, familia eta eskolaren arteko hezkuntza-proiektu bateratu bat sortzea egokiena izango litzateke, eskaini nahi duten hezkuntza-motari eta nahi dutena lortzeko behar dituzten baliabideei eta tresnei erantzun ahal izateko (Aguado, 2010b).

Familia eta hezkuntza instituzioak elkarrekin aritu behar dira haurraren garapen integrala lortzeko bidean. Anabel Moriñak aipatu zuen bezala, "El desafío está en qué y cómo hacer para abrir las fronteras y que las familias entren y se impliquen en los centros educativos" (Moriña, 2010, p. 121). Soziologia eta Pedagogia hezkuntza bien aldean arteko elkarlana delaren ideiarekin bat datoz, baita beste batzuen ere. Biek aitortzen dute familiarren hezkuntza eta sozializazio jardunek, eskola errendimendua baldintzatzen dutela. Eskolan arrakasta izateko, disziplina eta barne-motibazio handiagoak beharrezkoak dira eta zailtasunak izango ditu sozializazioa ondo gauzatu ez duenak, ez dutelako lanerako gaitasunik garatzen edota ez du berenganatzen

ikasteko ohiturak eta teknikarik garatzen. Familia harremanaren mende nortasunean barneratutako elementu psikologikoak, lorpen akademikoak lortzeko beharrezkoak izango direnak. Beraz, ondorioztatzen da familia badela arrakastaren edo porrotaren gakoetako bat (Taberner, 2009).

Aurrekoaren ildora, familien eta eskolaren arteko elkarlanaren emaitzak oso positiboak dira, bai haurrentzat, eskolarentzat eta familientzat, baita hauek sortzen duten komunitatearentzat ere. Kñallinskyk aipatzen du inplikazio horrek eragin positiboa duela arlo kognitiboetan (irakurketa, idazketa eta kalkulua) eta eremu ez-kognitiboetan (eskoletara erregularitasunez joatea, eskolako lanak egiteko motibazioa, gelan aktiboki parte hartzea, etabar.) (Kñallinskyk, 2003).

Esan beharra dago, eskola-errendimenduan, familia-harreman on bat ezik, gurasoen gizarte-klasea, lanbidea edo kulturak ere eragina dutela. Izan ere, faktore hauek haur batek hezkuntzarako dituen baliabide ekonomiko eta kulturalak zein hezkuntza-sistemako orientazioa eta xedea baldintzatzen dituzte (Taberner, 2009).

4.3 Familia ereduak

Gaur egun, gizartean familia mota asko daude, hainbat aditu honen sailkapena eginez gero, hori argi ikus daitekeelarik. Orokorrean, lau familia mota zehazten dira: nuklearra, hedatua, guraso bakarreko familia eta elkartua. Osasunaren ildoan, Corbin psikologoak zortzi familia mota zehazten ditu: nuklearra, monoparentala, adopziokoa, seme-alabarik gabekoa, guraso dibortziatuak dituen, elkartua, homoparentala eta hedatua (Corbin, 2018).

Hala ere, oso interesgarria da Lucia Aguadok egindako familia ereduaren sailkapen irekia. Haren aburuz, hezitzaileek ikasleen errealitatea ulertzen laguntzea premia da. Horregatik, gaur egungo familien sailkapen irekia aurkezten du, lehen aipatu bezala, azken urteetan gizarteak jasan dituen aldaketak horren beharra sortzen duelako. Kontuan hartzekoa da, 2010eko sailkapena dela eta gerta daitekela haur batek bi familia mota uztartzen dituen familia mota batekoa izatea. Adibidez, ume bat adoptatua izan ahal da familia homoparental batean (Aguado, 2010a).

Familia motei dagokionez, lehenik eta behin, *familia hedatuak edo konplexuak* daude. Hauen barnean gune bat baino gehiago bereizten dira, normalean hainbat belaunalditakoak. Adibidez, gurasoekin bizi diren bikoteak. Dena den, gero eta gutxiago

dira. Bigarrenik, *familia nuklear funtzionala* urte askotan eredu tradizionala izan da, baina ezaugarriak eta kopurua aldatzen ari da. Lehen, familia mota hau osatzen zuten bikoteak ezkontuta egon behar ziren, seme-alaba biologikoak izan behar zituzten, aitak etxetik kanpo lan egin behar zuen eta amak etxeko ardura hartu. Gaur egun, familia mota hau asko aldatu da. Bikote gehienak ez dira ezkontzen eta rolen banaketa aldatu da. Modu berean, haurrak izateko metodo ezberdinak izaten dituzte (biologikoak, adopzioaren bidez, aurreko harreman batekoak ...) (Aguado, 2010a:132or).

Guraso bakar batek eta bere seme-alabek osatzen duten familia, *gurasobakarreko familia* deritzo, alarguntasunaren ondorioz, seme-alabak ezkontzatik kanpo edota dibortzioaren ondorioz sortutakoa. Kasu honetan, seme-alabak izateko metodo anitzak erabiltzen dituzte. Gero eta gehiago dira, familia mota hau betidanik egon da gure gizartean, gehienetan gutxi errespetatua izan bada ere (Aguado, 2010a:132-133or). Familia mota hau, familia monoparentala ere deitzen dena, aita edo ama batez eta 18 urte baino gutxiago dituen seme-alabek osatutako familia da (Schlesinger, 1985). Halaber, familiak *seme-alabarik gabeko guneak* izan daitezke. Ohikoak dira bai gazteen kasuan, gurasoen etxetik joaten direnean baina ez dute seme-alabak hain goiz eduki nahi, bai seme-alabarik ez izatea erabakitzen duten bikoteen kasuan. Bestetik, *pertsona bakarreko guneak* dibortziatuak, bereiztuak, ezkongabeak eta alargunak osatzen dituzte. Haien independentzia ekonomikoagatik posibilitatea daukate (Aguado, 2010a:133or).

Izatezko bikoteak azken urteotan asko ugaltu dira; bi pertsona etxe ezberdinetan bizi dira baina bikote iraunkorra dira. Egia esan, balorazio sozial eta juridikoa irabazi dute azken denboraldian (Aguado, 2010a:133or). Bestalde, gero eta pertsona gehiago haien herrialdeetatik alde egiten dute bizitza on baten esperoan. Hori horrela, *familia etorkinak* sortzen dira eta aniztasun handia ematen dute gizarteari (Aguado, 2010a:137or).

Familia berreraikietan, berriz, bikotekideek gutxienez aurretik izandako seme-alaba bat izaten dute. Gizartean gizonek emakumeek baino joera gehiago dute familia mota hau osatzeko. Hauek alde batera utzita, adopzio prozesuak igaro dituzten familiak daude. Hauek oso luzeak izaten dira eta umea adoptatu nahi duten bikoteek hainbat froga gainditu behar dituzte haurra bere etxeetan izateko. *Adopzio-familietan* aniztasun handia dago, gurasoen motibazioak eta familiako kideen ezaugarriek sortzen dituztelako. Prozesu honetan arazo psikologikoak ager daitezke, hala nola, umearen adina, umeak bere aurretik bizitako esperientziak, umearekin komunikatzeko era... (Aguado, 2010a:134or).

Adopzioarekin lotuta dauden guneak, *harrera familiak* dira. Familia hauek haurrak bere gunean babesten dituzte, gizarte zerbitzuek guraso biologikoen arazoak konpontzen dituzten bitartean. Familia hauetan sartzen diren umeak abandonatuak, tratu txarrak jaso dituztenak edota laguntza behar dutenak dira. Datu gisa, gero eta familia gehiago, umezurtzak edo baliabideak ez dituzten haurrak oporretan ekartzen dituzte (Aguado, 2010a:135or).

Gaur egungo gizartean, *familia homoparentalak* onartuta daude, baina guztiz normala ikusteko oraindik lan handia egin beharko da. Familia hauetan gurasoak sexu berekoak dira eta ondorengoak izateko hainbat prozesu erabiltzen dituzte: adopzioa, intseminatzaile batez baliatuta, autointseminazioa lagun baten laguntzaz... Familia hauek oso egokiak izan daitezke eta gizartearen aurreiritziak eta haiekiko tolerantzia ezako jarrerak mingarriak dira. Gainera, bikote batek seme alabak izateko aukera ez daukatenean *ugalketa lagundura* jotzea oso ohikoa da, hau da, intseminazio edo in vitro ernalketa prozesuetatik pasatzen diren familiak (Aguado, 2010a:136or). Carmelo Lison-ek familia homoparentalak bi emakumez edo bi gizonez osatutako familiak direla dio, seme-alabak adopzio edo intseminazio bidez edota lehen izandako erlazio heterosexualetatik izan dituzten gurasoek osatzen dituztela (Lison, 2007).

Azkenik, *subrogazio* bidez sortutako familiak gero eta ohikoagoak dira. Hauetan, emakume batek beste pertsona batentzako haur bat izaten du. Normalean emakumearen esplotazioa ematen da eta presioagatik arrazoi ekonomikoengatik egiten du. Subrogazioa hiru modutan eman ahal da: osoko subrogazioa (umea nahi duen bikotearen aitaren esperma eta amaren obulua erabiltzen direnean), subrogazio partziala (umea nahi duen bikotearen aitak esperma eta amaordearen obulua erabiltzen da) eta emailearen bidez sortutakoa (emaileek esperma edo obulua jartzen dute) (Aguado, 2010a:137or).


Haurdunaldi subrogatua kontzeptu polemikoa izan da betidanik. Eztabaida zabal horretan, batez ere, alderdi etikoari dagokionez, haren aplikazioa eta izan ditzakeen arriskuak aztertzen dira. Eztabaidarako arrazoi bat sexu-askatasunerako eta emakume haurdunaren duintasunerako eskubidearen arteko lotura da. Hainbat elkarte ez daude haurdunaldi subrogatua legeztatzearen alde, adibidez, Red Estatal Contra el Alquiler de Vientres (RECAV) eta No Somos Vasijas. Hauen aburuz, ekintza honek emakumearen kontrol sexuala eskatzen du eta haien gorputzaren integrazio eskubideek ezin dutelako inolako kontraturik izan. Gainera, Espainiako Konstituzioak oinarrizko eskubide gisa aitortzen du duintasunerako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea; beraz,

pertsonak ezin dute, besteak beste, tratu degradatzailerik jasan (Espainiar Konstituzioa, 1978). Era berean, Kode Zibila, zehazten du pertsonak ezin direla salerosketaren edo kontratu-transakzioaren xede izan. (Espainiako kode zibila, 1889).

Subrogazioa emakume haurdunaren sexu-askatasunaren eta duintasunaren aurkako atentatua da, non emakumea akordioa betetzera behartua dagoen, nahiz eta haurdunaldian zehar iritiz aldatu. Hala eta guztiz ere, praktika honen alde dauden pertsonak uste dute kontuan hartu behar dela haurdunaldi subrogatua nagusien akordio onartua dela eta inplikaturako pertsonen eskubideak eta askatasunak urratzen ez dituen eta borondatez eta askatasunez egindako ekintza dela.

Laburbilduz, Literaturan lantzen diren familia-ereduak eta, era berean, lan honetan kontuan hartuko direnak eskema honetan (2. Eskema) aurkeztuko dira jarraian.

2.Eskema. Familia eredu berriak literaturan



Iturria: Egileak egindakoa.

4.4 Familiaren eginkizunak

Aipatzekoa da familiak betetzen dituen eginkizunak desberdinak direla autorearen arabera. Torio Lopez-ek zortzi funtzio zehazten ditu: zainketa eguneroko bizitzan,

eginkizun afektibo emozionala, hezkuntza funtzioa, sozializatzeko funtzioa, babespen funtzioa, sexu eta ugalketa funtzioak, aisialdi funtzioa eta erlijio funtzioa (Torio, 2003).

Palacios eta Rodrigok, aldiz, familiaren lau funtzio basikoak zehazten dituzte: Lehenengoa, helduen eraikuntza garatzea. Bizi zikloan zehar familiako kide guztiek beren identitatearen, orekaren eta ongizate pertsonalaren zentzua garatzeko aukera dute. Horretarako, autoestimua egokia eta autonomia bezalako alderdiak izatea funtsezkoak dira, bizitzako gatazkei eta egoera estresagarriari heldutasunez aurre egiten laguntzen dutelako. Aipatzekoa da ere, helduek haurtzarotik izan dituzten lotura-harremanen kalitatea garrantzitsua dela. Harreman horien ondorioz, norberarengan eta besteengan segurtasun- eta konfiantza-tarte desberdinak sortzen dira helduaroko atxikimendu-erlazioak planteatzeko (Rodrigo eta Palacios, 1998).

Bigarrena, bizitzarako prestakuntza da. Familian, egoera jakin batzuetarako eta gizarte-rolak betetzeko sozialki ezarritako arauak ikasten dira, baita erantzukizunak eta konpromisoak hartzea ere. Ez hori bakarrik, itxaropenak zabaltzen dira kide bakoitzarengandik espero denarekiko, eta familian jasotzen den motibazioa etorkizunari aurre egiteko ezinbestekoa da (Rodrigo eta Palacios, 1998).

Familiaren hirugarren eginkizuna, belaunaldien arteko topalekua dela da. Familiak aukera ematen du gurasoak (oraina), aitona-amonak (iragana) eta seme-alabak (etorkizuna) elkartzeko. Haien arteko afektuaren eta haien bizitzak zuzentzen dituzten balioen bidez, topagune honek belaunaldien arteko joera, ohitura eta estiloen trukea ahalbidetzen du, elkar aberasteko (Rodrigo eta Palacios, 1998).

Azkenik, familiak trantsizio eta bizi-arazoetarako laguntza eman behar du. Familian arazoak eta gatazkak sortzen dira, baina kanpoan sortzen diren zailtasunen aurrean laguntza ere eman dezake, familiak kide guztiei laguntza pertsonal zein soziala eskainiz (Rodrigo eta Palacios, 1998).

4.5 Familia ereduak literaturan

Gizartea eta artea haur eta gazte literatura liburuan Sandra Martinezen Gradu Amaierako Lana agertzen da. Haren aburuz, haurrak eskolan onartuak sentitzeko, haien familia errespetatzen direla ikusi behar dute. Gaur egun familia mota asko daudenez, ezinbestekoa da gelan familia mota desberdinei lekua ematea eta hauek onartzen erakustea (Kortazar, 2015). Hau modu askotan bermatu daiteke, adibidez, literaturaren bidez.

Argi dago liburuek duten balio hezitzaile handia, Haur Hezkuntzan bereziki oso baliabide egokia da haurrekin edozein gaia lantzeko. Dena den, hezitzaile gisa kontuan izan behar dira ipuinetan agertzen diren estereotipoak (umearen zaintzaz ama goxoa arduratzen dela, aita indartsua dela etxetik kanpo lan egiten duena, etab.) (Kortazar, 2015). Beraz, ezinbestekoa da irakasle bezala liburuen lanketa egitea, estereotipoak suntsitzeko eta haurrek familia eredu desberdinak ezagutu eta errespetatu ditzaten.

Askotan, txikitan ikasitako edukiak ahaztu egiten dira, baina ipuinak gogoratzeko errazak dira, memoria garatzen laguntzen baitute eta gure oroimenean gelditzen dira. Ipuinetako pertsonaiak eta ekintzak ahaztea zaila da, baina ipuinetan zeharka agertzen diren aurreiritziak eta estereotipoak ahaztea are gehiago (Abotiz, 2009). Haurrei liburu bat irakurtzerakoan, haurrek gaiari, hizkuntzari edota irudiei ez ezik, estereotipoei ere erreparatzen diote eta hezitzaileek hori kontrolatu behar dute (Kortazar, 2015).

Aurretik esan bezala, azken urteotan familia aldatuz joan da. Lehen, familia tradizionaleko kideen rol banaketa argia zen (amak etxea eta seme-alabak zaindu eta aita lan egin dirua lortzeko). Gaur egun, familiaren konposaketa ez da beti familia tradizionalean bezala eta kideen rolak eta betebeharrak aldatu dira, beharbada, aldaketa handiena autoritate irudia ez dela zertan aitarena izan. Apurka-apurka emakumeen eta gizonen rol parekotasuna lortzen ari da (Lopez, Morgado eta Gonzalez, 2008).

Ipuinetan ere aitaren irudia aldatuz joan da denboran zehar. Ipuin tradizionalean aitaren presentzia eskasa zen eta agertzekotan, emoziorik gabekoak dira, lanean aritzen dira eta momentu konkretuetan agertzen dira. Gaur egungo ipuinetan, aitaren presentzia eskasa arraitzen du, baina gero eta sentimendu gehiago erakusten dituzte eta aita eta amak rolak aldatzen dituzte hainbat liburuetan. Amaren irudia ere aldatuz joan da; ipuin tradizionalean ama afektibotasunarekin eta zaintzarekin lotuta dago, haurren beharrak asetzen dituelarik. Gaur egungo ipuinetan, aldiz, amaren zeregina ez da umearen zaintzan bakarrik zentratzen, emakumeek gizartean duten papera islatzen da. Gainera, etxeko tresneriak (erratza, sukaldeko tresnak) alde batera uzten ari dituzte eta gizonekin lotutako tresnekin agertzen dira (Kortazar, 2015).


Hau esanda, ikerketa batzuk baieztatzen dute haur literaturan agertzen diren genero estereotipoek irakurlearen izaeran eta portaeran eragina izan dezaketela, beraz, ipuinetan agertzen diren estereotipo guztiak kontuan izan behar dira (Anderson eta Hamilton, 2005).

5. GAUR EGUNGO FAMILIAREN ARGAZKIA

Marko teorikoa osotzeko, atal honetan gaur egungo familiaren argazkia azalduko da, azken urteetako familiaren inguruko datu errealak eta objektiboak emanez. Gaur egungo egoera ulertu ahal izateko, gure herrialdearen historiari erreparatu beharko zaio eta azken urteetan familiaren garapena zein izan den aztertu.

Hasteko, familia ereduaren azterketari dagokionez, Eustat webgunean argitaratutako datuen arabera, grafikoetan ikusten den bezala (1. Grafikoa), 2001ean Euskal Autonomi Erkidegoan (EAE) 748.967 familiatik, gehienak, %41a, nuklearra seme-alabekin ziren (302.533). Familia nuklearra ez da bakarrik kopuruz gehiengoa dena, gure gizartearen familia tradizionala da eta, ondorioz, marko teorikoan aipatu bezala, askotan imaginatzen eta transmititzen den familia mota. Jarraian, familien %17a familia seme-alabarik gabeko guneak (127.615) eta %20a (151.855) pertsona bakarreko guneak ziren. Horietaz aparte, laginaren %10a gurasobakarreko familiak ziren (75.428), 53.198 familia hedatua (%7), %3a konposatua (25.371) eta azkenik, %2a gune askotarikoak (12.967). Datu hauek ikusita, duela 19 urte, milurtekoa hasi zenean, gure gizarteak mota askotariko familiak zituela ondoriozta daiteke, hezkuntza sisteman presentzia gutxiko familiak zirenak (Eustat,2004).


1. Grafikoa. Familia ereduak EAEn, 2001ean (%)



Iturria: Egileak egindakoa. Datuak EUSTAT (2004).

Hamabost urte geroago, 2016 urtean egoera nahiko berdintsua izan arren, aldaketa nabariak eman ziren (2. Grafikoa). 892.100 familietatik, familia nuklearra seme-alabekin, %34a zen, hau da, 300.200 familia. Pertsona bakarreko guneak %28a (245.000) eta seme-alabarik gabeko guneak ere ugariak ziren, %21a, (187.300 familia). Horretaz gain, %9a gurasobakarreko familia ziren (82.000), %4a hedatuak (38.900), %3a konposatua (26.400) eta %1a gune askotarikoak ziren (12.300) (Eustat,2018).

2. Grafikoa. Familia ereduak EAEN, 2016an (%)



Iturria: Egileak egindakoa. Datuak EUSTAT (2018).

Marko teorikoan aipatu bezala, gizartean gero eta familia gehiago daude baina txikiagoak dira eta ezaugarri anitzekin. Laburbilduz, 2001 eta 2016 urteak alderatzen badira, ikus daiteke familien joerak aldatu direla eta aniztasun handia dagoela. Bi urte horietan seme-alabak dituzten familia nuklearrak gehiengoa izaten jarraitzen badu ere, aipatzekoa da 2001ean mota honetako familia gehiago zeudela 2016an baino, hots, %7an jaitsi zen. Beste familia mota batzuek, ordea, gora egin dute: adibidez, seme-alabarik gabeko familiek eta pertsona bakarreko guneek, %4a eta 8a egin dute gora, hurrenez hurren. Honekin, ume gutxiago jaiotzen ari direla eta gero eta pertsona gehiago bikote gabe dagoela ondoriozta daiteke. Izan ere, aztertutako familia gutxiengoan kasuan, hau da, gurasobakarrak, hedatuak, konposatua eta gune askotariko familien kopurua ez da asko aldatu. Nahiz eta ehuneko baxua izan, mota hauetako familien kopurua ez da txikia eta gure gizartean presentzia daukate.

Orokorrean, aztertutako lehen urtea baino lehen, XX. mendean, Frankismoa eta gero, garai horretako familia tradizionalak behera egin zuen. Beste aldaketen artean, garrantzitsuena dibortzioa izan zen, familia eredu gehiago eta gizartearen aniztasuna sortuz. Geroago, 2005an sexu berdineko pertsonen ezkontza ahalbidetzearekin batera, familia homoparentalak sortu eta kopurua handitu zen.

1996 eta 2006 artean Euskal Autonomia Erkidegoan 104.000 familia inguru sortu ziren, eta horrek, Eustatek egindako datuen arabera, %15eko hazkundea ekarri zuen. Familia tradizionala, bi gurasoek eta seme-alaba batek edo gehiagok osatutakoa, 1986an familia guztien %63a ziren, 1996an %51a eta 2006an %40,8a. Halaber, pertsona bakarreko familiak hazi dira (Eustat, 2008).

Familien kideen rolei dagokienez, XXI. mendean, oraindik ere, genero rola direla medio, etxeko lanak eta seme-alaben edo mendekotasuna duten pertsonen zainketa


gehienetan familiaren emakumeari dagozkiola esan daiteke. 2012an, Euskal Estatistika Erakundearen arabera, zazpi gizonetatik batek seme-alabak zaintzeko emakumeen denbora bera ematen zuen. Hortaz, ondorengoak dituzten emakume langileen erdiak egunean 5 ordu edo gehiago ematen ditu seme alabak zaintzen (Eustat, 2012).

2017an, Eustatek emakumearen egunean prentsa-ohar batean publikatu zuen bezala, etxetik kanpo lan egiten duten euskal emakumeek egunean 4,5 ordu ematen zituzten 15 urtetik beherako seme-alabak zaintzen. Egoera baliokidean zeuden gizonek, berriz, egunean 2,9 ordu baino ez zituzten ematen. Halaber, diferentzia murriztu egiten da mendekotasuna duten pertsonak zaintzeari dagokionez; norbaiten ardurapena izatekotan, gizonek egunean 1,5 ordu eta emakumeek, 2,1 ordu ematen zituzten. Hala eta guztiz ere, nabaria da emakumeak zaintza horien ardura daukatela (Eustat, 2017a).

Halaber, etxeko lanen banaketa ere desberdina da EAEan lan egiten duten pertsonen artean; 2016an emakumeak gizonak baino bi aldiz denbora gehiago pasatzen zuten etxeko lanetan (Eustat, 2016). Funtzioen banaketaren desoreka horren ondorioz, 2017an emakume landunen %14,9a ez zegoen gustura bikotekideak etxeko lanetan egiten zuenarekin. Aitzitik, gizon okupatu gehienak, % 70,4a oso gustura zeuden bikotekidearen etxeko lanarekin (Eustat, 2017a).

Marko teorikoan aipatu bezala, hainbat aldaketa soziologikoen familia ereduetan eragiten dute, beste batzuen artean, jaiotza tasak behera egin du eta familiek seme-alabak gero eta beranduago izaten dituzte. Euskal Autonomia Erkidegoan, urteetan zehar jaiotza tasa aldakorra izan da, esan bezala, gizarteko egoerei lotuta baitago. Grafikoan ikusten den bezala hamar urte hauetako joera negatiboa izan da (3. Grafikoa), 2008tik 2018ra, jaiotza kopuruak behera egin duela ikus daiteke, 2008an 22.038 haur jaio ziren eta 2018an, ia 6.000 ume gutxiago (Eustat, 2019).


3. Grafikoa. Jaiotza kopuruak EAEan 2008tik 2018ra



Iturria: Egileak egindakoa. Datuak Eustat (2019)

Jaiotza ordenaren arabera, 2015, 2016 eta 2017an izandako jaiotzen ordena parekoa da (4. Grafikoa). Hiru urte horietan, jaiotza kopuruaren erdia baino gehiago, lehen seme-alabak izan ziren, %53, %51 eta %50 kronologikoki; umeen %37a, %38a eta %39a umeen kasuan, aurretik beste seme bat zuten familietara iritsi ziren. Hirugarren seme-alabak eta ondorengo ordenakoak 2015ean %10a izan zen eta hurrengo bi urteetan %11 (Eustat, 2019b).


4. Grafikoa. Jaiotzen ordena (2015, 2016 eta 2017)



Iturria: Egileak egindakoa. Datuak Eustat (2019)

Amatasun adina gero eta handiagoa da, 2017ko bigarren hiru hilekoan, hamarretatik zortzi emakumeek 30 urte baino gehiago zituen (5. Grafikoa). Zehazki, 2017an, erditzeen %36,6an 30-34 urteko amak ziren, %35,5a 35-39 eta %13,8a 25-29 urtekoak. 25 urte baino gutxiagoko emakumeen erditzeen portzentaia, berriz, %5,3koa zen eta 40 urtetik gorako amen taldea, berriz, %8,8a. Are gehiago, 2017ko udaberrian EAEn ama izan ziren emakumeen %20,8ak atzerriko nazionalitatea zuen, aurreko urteen joera mantentzen zelarik (Eustat, 2017b).

5. Grafikoa. Amatasun adina 2017ko bigarren hiru hilekoan



Iturria: Egileak egindakoa. Datuak Eustat (2017b)

Ondorioz, gaur egungo egoera ikusita, hainbat kontzeptu ondoriozta daitezke. Lehenik eta behin, familia ereduak direla eta, 2001 eta 2016 urteak aztertu ondoren, orokorrean, egoera berdina dela esan daiteke. Hala ere, zifrak mugitu direla ikusten da, hau da, urteetan izan den familia tradizionala behera doa. Jarraitzeko, emakumearen rola oraindik ere genero rolei lotuta dago eta familia gehienek kasuan umeen eta mendekotasuna duten pertsonen zainketa bere ardura dela. Gainera, nahiz eta emakume langileak izan, etxeko lanen ardura ere daukate. Hala ere, gizon okupatu gehienek oso gustura daude bikotekidearen etxeko lanarekin, baina emakume gutxi dira gustura ez daudenak bikotekideak etxean egiten duenarekin. Honekin ikusten da gure gizartean, oraindik ere, emakumeek bikotekideek egiten dituzten etxeko lanak laguntza bezala ikusten dutela, hau da, genero rolak presentzia handia daukate gaur egungo familietan. Amaitzeko, EAEn gero eta ume gutxiago jaiotzen dira, haien amen adina gero eta handiagoa da eta haur askok ezkontzatik kanpo jaiotzen dira. Izan ere, immigrazioari esker gure herrialdean haur gehiago jaiotzen dira.

6. EMAITZAK

Metodologian azaldu bezala, hirugarren praktikaldia burutu den eskolan Haur Hezkuntzan dauden haurren familiak aztertu dira. Esan bezala, ikerketa-helburuei aurre egiteko, txantiloia bat erabili da tresna gisa, datu objektibo kualitatibo eta kuantitatiboak biltzeko (1. Eranskina). Galdetegian oinarritzen den behaketa honen bidez, 3. gelatik 5.era bitarteko ikasleek familia nola ulertzen duten jakin ahal izango da. Hau da, familia bere imaginarioan nola irudikatzen den jakingo dugu eta hau da, hain zuzen ere, gure bigarren helburua. Horrela, txantiloia informazioa lortzeko aukera eman zuen, ikertutako subjektuekin (ikasleen gurasoekin, tutoreekin eta haurrekin). Esan beharra dago, galdeketak biltzen dituen kontzeptuak eta galderak eskola eta testuingurua ezagutu aurretik erabaki zirela, hortaz, haren diseinua irekia eta malgu izan da.

Informazioa lortzeko gela bakoitzeko irakasle tutoreak elkarrizketatu dira, oso ondo ezagutzen baitituzte haien ikasleen familia ereduak eta haur bakoitzaren errutinak. Horrela, haurren informazioa lortzeaz gain, irakasleak geletan familien kontzeptuari buruz egiten duten lanketa ulertzeko eta irakasleen zenbait jarrera ezagutzeko baliagarria izan da. Gainera, elkarrizketa hauen bidez, testuinguruan jarri dizkidaten datu interesgarriak lortu ditut, lan honen helburuak betetzeko balio dutenak. Halaber, eskola horretan egondako hiru hilabeteetan familia kontzeptuaren lanketa eta azterketa gauzatu

denez, irakaslearen jarreraz aparte, hainbat material eta ekintza erabili dira ikerketa osotzeko, hala nola, haurrek familiaren inguruan egindako marrazkiak eta familia eredu desberdinen argazkiak erakustean haurrek emandako erantzuna.

Beraz, atal honetan egindako ikerketa sakonaren emaitzak lau ataletan agertuko dira: alde batetik, ikastetxearen deskribapena eta, bestetik, ikertutako datuen azalpena hiru ataletan bananduta: emakumearen rola, familiaren lanketa klasean eta irakaslea.

6.1 Zentroaren deskribapena

Lan honen ikerketa gauzatzeko 10.000 biztanle inguru dituen herri arabar bateko kristau eskola bat aukeratu da. Herri horretan, hezkuntza eskaintza handia da, 0-12 urte bitarteko hezkuntza duten lau eskola baitaude. Itunpeko eskola honetako familia gehienak herrikoak dira, gehien bat ikasle ohien seme-alabak. Balio kristauak eskaintzen ditu, Euskal kultura transmititzen du eta herriko gizartean guztiz murgilduta dago.

Herri horretan, orokorrean, biztanlegoaren maila ekonomikoa ertaina da; herriaren ekonomia industrian eta zerbitzuetan oinarrituta dago. Urteak pasa ahala, herria industria-gune garrantzitsu bilakatu da, eta horrek beste Autonomia Erkidego eta herrialde batzuetako pertsona askoren etortzea suposatu du. Hori dela eta, azkenengo hamarkadan ikasleriaren profila aldatu da, ekonomia eta familien egituraren aldetik. Familia erduei dagokionez, gero eta anitzagoak dira eta familia euskaldunen kopurua ere hazten ari da. Kulturartekotasuna kontuan hartuz, gero eta etorkin gehiago daude, zeinak, kultura, hizkuntza eta ohitura anitzeko ikasleak izatea dakarren. Hortaz, ikastetxe honek ikasle etorkinak ditu, baina herriko beste ikastetxeekin alderatuz, eskola honek ikasle etorkin kopuru baxuagoa dauka.

Ikastetxearen historiari dagokionez, pasa den mendeko 50. Hamarkadan hainbat lekaimek neskak heitzeko eskola sortu zuten eta geroago, mutilak onartu zituzten, genero bereizketa handia eginez. Pasa den urtean, lekaimeak alde egin zuten eta ikastetxea fundazio baten menpe gelditu da. Honek hainbat aldaketa eragin ditu, adibidez, haurrek lehen zeramaten uniforme klasikoa kendu dute, nesken eta mutilen arteko diferentziak ekidinez. Gainera, ikastetxea D eredukoa bihurtu da eta euskararen garrantziaz suspertu nahi dute haren aldeko hamaika ekintzetan parte hartuz.

Ikastetxe hau txikia da, lerro bakar batean 0-12 urte bitarteko hezkuntza eskaintzen du. Balioetan oinarritutako hezkuntzaren bidez, hezkuntza hurbila, banan-banakoa,

integrala, eleanitza eta inklusiboa eskaintzen duen ikastetxea da. Hori horrela, etengabe aldatzen ari den gizarte-ingurunean murgiltzen jakiteko kapazak diren haur autonomoak prestatzen dituztela aitortzen dute. Xede edo misioen artean, familiekin lankidetzan hezitzea da. Hala ere, geroago ikusiko den bezala, gurasoen artean, eskolako ekintzetan gehien parte hartzen dutenak amak dira.

Ikerketa, zehazki, eskola honetako Haur Hezkuntza etapan zentratuko da. Esan bezala, lerro bakarrekoa denez, 3, 4 eta 5 urteko gela bakarrak dituzte, guztira 57 familia. Familia horietatik, 13 hiruko urte gelan daude, 26 lau urteko gelan eta 18 bost urteko gelan. Hasteko, familia hauen seme alaben kopurua jakitea interesgarria da testuinguruan jartzeko. Taulan behatu ahal den moduan, hiru urteko gelan 3 ume seme-alaba bakarrak dira, 9 beste neba-arreba bat daukate eta batek hiru neba-arreba ditu (1. Taula). Lau urteko gelan, egoera nahiko berdina da, 7 ume seme-alaba bakarrak dira, 17k neba-arreba bat daukate eta 2 umeen kasuan beste bi neba-arreba dauzkate. Bost urteko gelan, aldiz, 18 umeetatik ez dago seme-alaba bakarrik eta hiru seme-alabako familia bakar bat dago. Gainontzeko 17 umeek beste anai-arreba bat daukate. 6. Grafikoan ikusi daitekenez, bi seme-alabea dituzten familiak nagusitzen dira, familien %75a izanda; %18a seme-alaba bakarreko familiak dira eta %7a hiru seme-alabeko familiak dira.


Gaur egungo familiaren argazkian azaldu bezala, 2015an, 2016an eta 2017an jaio ziren umeen kopuruaren erdia baino gehiagoa lehen seme-alabak ziren. Eskola honetan 2019-2020 ikasturtean, ume hiru laurdenak bigarren seme-alabak dira. Beraz, ikerketaren eta datuen arteko desberdintasuna ikusten da.

1.Taula. Haur Hezkuntzako familien seme-alaben kopurua

SEME-ALABEN KOPURUA	3 URTE	4 URTE	5 URTE	GUZTIRA
SEME-ALABA 1	3	7	0	10
SEME-ALABA 2	9	17	17	43
SEME-ALABA 3	1	2	1	4
GUZTIRA	13	26	18	57

Iturria: Egileak egindakoa

6. Grafikoa. Haur Hezkuntzako seme-alaben kopurua



Iturria: Egileak egindakoa

Familia ereduak erreparatu, marko teorikoan azaldu den bezala, gizarteko familia gehienak nuklear funtzionalak dira. Hala ere, familia mota honen ezaugarriak eta kopurua aldatzen ari dira. Izan ere, gaur egun bikote asko ez dira ezkontzen eta umeak izateko metodo ezberdinak erabiltzen dituzte.

Eskola honetan, 2. Taulan argi ikus daitekeen moduan, gizartearen joera ematen da, gehienak familia eredu tradizionala daukate (7. Grafikoa). Hala ere, badaude beste motatako zenbait familia. Hiru geletan urteetan nagusitu den familia tradizionala da, 45 izanik (%79). Gainera, Haur Hezkuntzako 7 familia etorkinak dira (%12), bi haurren gurasoak dibortziatuak daude (%3,5), eta bi familia hedatuak daude (%3,5). Azkenik, lau urteko gelan gurasobakar bat dago (%2a), ama bakarra hain zuzen ere. Marko teorikoan aipatu bezala, familia berreraikia osatzeko, gizonek emakumeek baino joera gehiago daukate eta kasu honetan horrela da; bi kasutan, familiako aitak beste erlazio batetik izandako seme-alaba bat gehitzen du bere erlazio berrira, aita eta bere seme-alaba, bikote berria eta harekin izandako seme-alabak elkarrekin bizitzen direlarik.


Lehen esan bezala, familia mota batzuk (gurasobakarrak, hedatuak, konposatuak eta gune askotarikoak) urteetan zehar ehuneko baxua izan dute. Eskola honetan pareko egoera ematen da, familia eredu ezberdinak baitaude. Hala ere, ondorioztatu da 2001 eta 2016 urteen artean familia nuklear funtzionalak behera egin zuela (%41tik %34ra); eskola honen kasuan, familien %79a, mota honetakoa da. Datu hau kristau eskola izateagatik izan daiteke, beharbada, herri honetako familia mota honetako ehunekoa ez da hain altua izango, baina testuinguru honetan bai.

2. Taula. Haur Hezkuntzako umeen familia ereduak

FAMILIA EREDUAK	3 URTE	4 URTE	5 URTE	GUZTIRA
NUKLEAR FUNTZIONALA	10	21	14	45
GURASOBAKARRA	0	1	0	1
BERRERAIKIA	1	0	1	2
GURASO DIBORTZIATUAK	0	1	1	2
ETORKINA	2	3	2	7
GUZTIRA	13	26	18	57

Iturria: Egileak egindakoa

7. Grafikoa. Haur Hezkuntzako umeen familia ereduak (%)



Iturria: Egileak egindakoa

6.2 Emakumearen rola

Esan bezala, azken urteetan familiaren egituraketa eta funtzionamenduak aldaketa handia jasan du, instituzioa gizartearekin batera aldatu delako. Hortaz, balore berriak agertzen ari dira; nabarienak aipatzearen apurka-apurka patriarkatua eta emakumearen mendetasuna desagertzen ari da eta emakumearen lana etxetik kanpo hedatu dela esan daiteke.


Eskola honetako Haur Hezkuntzako 57 familietatik, 51 amek lan egiten dute (3. Taula). Taulan ikusi daiteke hiru urteko gelan lan egiten ez duten 4 ama daudela eta lau eta bost urteko geletan ama bat gela bakoitzeko. Hiru urteko gelan lan egiten ez duten 4 ama egoteak, haurrak txikiagoak direlako izan daiteke, baina argi dago emakume gehienek, %89ak, etxetik kanpo lan egiten dutela eta %11ak etxean bestetik ez du lan egiten (8. Grafikoa).

3. Taula. Emakume okupatuak

AMA LANA KANPOAN	3 URTE	4 URTE	5 URTE	GUZTIRA
BAI	9	25	17	51
EZ	4	1	1	6
GUZTIRA	13	26	18	57

Iturria: Egileak egindakoa

8. Grafikoa. Emakume okupatuak (%)



Iturria: Egileak egindakoa

Marko teorikoa berreskuratuz, emakumeak lan mundura sartzearekin batera, etxeko lanak eta seme-alaben zaintza eta ardura bi gurasoen artean banatzeko beharra sortu da. Dena den, hurrengo tauletan ikusiko den bezala, seme-alabekin zer ikusia duten ekintza gehienak emakumeek betetzen dituzte.

Hasteko, haurrak eskolara norik eraman eta bertatik jasotzen duen jakin nahi zen. Horretarako, eguneroko behaketa eta tutoreekin izandako elkarrizketak erabili dira. Haurrak uztera edo haien bila etortzen diren helduak ama, aita, aiton-amonak, familiako beste kideak edo zaindaria dira. Normalean, eskolako patioa goizetan edo arratsaldetan behatzerakoan, heldu gehienak emakumeak direla aitortu behar da. 9. Grafikoan nabaria da gehienetan ama eskolara eramateko eta bilatzeko heldua dela, %47,4a. Bigarrenik, familia orokorrean daukagu (izeko, izeba...) %19,3a, hirugarrenik aita %15,8a, laugarrenik aiton-amonak %14a eta azkenik zaindaria %3,5a. Hurrengo taulan datu hauek zenbaki osoz adierazten dira (4. Taula).


2017an Eustatek argitaratu zuen etxetik kanpo lan egiten zuten euskal emakumeek egunean 4,5 ordu ematen zituztela seme-alabak zaintzeko eta gizonek 2,9 ordu (Eustat, 2017a). Datu hau 2019an eskola honetara eraman eta eskolatik bilatzearen ekintzara aplikatzen da. Hots, ordu horietan gurasoek ekintza hau egiten dute, ikusi den bezala, amek ia ehunekoaren erdia eta aitek soilik %15,8a.

4. Taula. Eskolara eraman eta bilatu

ERAMAN/BILATU	3 URTE	4 URTE	5 URTE	GUZTIRA
AITA	2	3	4	9
AMA	5	12	10	27
AITONA/AMONA	2	4	2	8
FAMILIA ORO.	4	5	2	11
ZAINDARIA	0	2	0	2
GUZTIRA	13	26	18	57

Iturria: Egileak egindakoa

9. Grafikoa. Eskolara eraman eta bilatu (%)



Iturria: Egileak egindakoa


Bigarrenik, tutoretzeta nor joaten den galdetu zitzaaien tutoreei. Hala ere, praktikan egon bitartean lehenengo ebaluaketaren tutoretzak izan ziren eta ama, aita edo biak etortzen ziren behatu ahal izan zen. Datuak argiak dira, hiru urteko gelan, haur baten aita bakar bat etorri zen, hiru eta lau urteko geletan pare bat ama bakarrik etorri ziren eta beste guztiak, 52 guraso, elkarrekin joan ziren tutorearekin adostutako elkarrizketara (5. Taula). Oro har, 10. grafikoa laginaren %91a bi gurasoak batera joan zirela adierazten du, %7a ama bakarrik eta %2a aita bakarrik. Izan ere, ikusi daiteke guraso bat bakarrik joanez gero, ama dela gehienetan arduratzen dena.

5. Taula. Tutoretzak

TUTORETZAK	3 URTE	4 URTE	5 URTE	GUZTIRA
AITA	0	1	0	1
AMA	2	2	0	4
BIAK	11	23	18	52
GUZTIRA	13	26	18	57

Iturria: Egileak egindakoa

10. Grafikoa. Tutoretzak (%)



Iturria: Egileak egindakoa

Jarraitzeko, etxeko lanak noren ardura ziren aztertu zen. Horretarako, lau eta bost urteko geletan ekintza batean, haurrek haien familien ohiturak kontatu zituzten. Baina, hiru urteko gelakoak horrelako galderak erantzuteko txikiak zirenez, tutorearen pertzepzioarekin konformatu beharra zegoen. Egia da egokiena gurasoei galdetzea izango zela, baina lehen aipatu bezala, eskolaren testuinguruak ikerketaren datu jasoketa baldintzatu du, etapako tutoreekin inkesta gurasoei bidaltzea komentatzean, tutoreek ezetz esan zuten, horrelako galderekin saminduta sentitu ahal zirela pentsatzen zutelarik. Haurren familiak ezagutzen zutenez, galderak egoki erantzungo zituztela aitortu zuten.

6. taulak 30 familien kasuan etxeko lanak bien artean egiten dituztela adierazten du, 22 familien kasuan ama da etxeko lanaz arduratzen dena eta 5 kasuetan aita. Nahiz eta zein neurritan ez jakin, %53ean etxeko lanak bi gurasoen artean banantzen dituzte, %39an amak egiten ditu eta %8an aitak.

Egia da gehienek kasuan lanak bien artean banatzen dituztela, baina amak ekintza hau bakarrik egiten duten kasuak ez dira asko aldentzen (11. Grafikoa). Gainera, kontuan izan behar dugu, emakumeen %89a etxetik kanpo lan egiten dutela eta etxeko lanen ardura ere izaten jarraitzen du. Beraz, literaturan "presentzia bikoitza" deitzen den fenomeno gertatzen da (Carrasquer et al., 2004). Fenomeno horren ondorioz, emakumeak presentzia du produkzio-lanean, ugalketa-lanean duen presentzia alde batera utzi gabe. Emakumeentzat, presentzia bikoitzak, alde batetik, lan-karga bikoitza dakar, eta horrek eragin negatiboa du haien enplegu-aukeretan eta karrera profesionalean; beste alde batetik, presentzia bikoitz horrek agerian uzten du emakumeen identitatea aldatu egin dela; izan ere, emakumeen protagonismoa ez dago


soilik etxeko eta familiako eremura mugatuta. Zoritxarrez, erakusten du, halaber, gizonek ez dutela beren gain hartzen dagokien ugalketa-lana.

6. Taula. Etxeko lanak

ETXEKO LANAK	3 URTE	4 URTE	5 URTE	GUZTIRA
AITA	2	2	1	5
AMA	5	10	7	22
BIAK	6	14	10	30
GUZTIRA	13	26	18	57

Iturria: Egileak egindakoa

11. Grafikoa. Etxeko lanak (%)



Iturria: Egileak egindakoa.

Aurreko galdera zuzenean gurasoei galdetzeko aukera eza kontuan hartuta, haurren materialaz nork arduratzen zen behatzea erabaki zen. Lau eta bost urteko geletan haurrei galdetu zitzaizen eta hiru urteko gelan gurasoek eskolara eramaten zuten behaketa zuzena egin zen (7. Taula). Hiru urteko gelan, haurren materiala 8 amek eramaten dute, aita bakar batek eta 4 kasutan txandakatu egiten dira. Lau urteko gelan, egoera nahiko parekoa da; 3 aita, 14 ama eta 9 kasutan txandaka. Azkenik, bost urteko gelan, aita bat, 12 ama eta 5 kasutan biak arduratzen dira haurren materialaz. Guztira, 5 aita, 34 ama eta 18 kasutan haurren bi gurasoak dira haurren motxilaz, amantalaz, frutaz, arropaz edo karpeta arduratzen direnak.


12. Grafikoan ikusten den bezala, gehienetan haurren materialaz arduratzen dena ama da, %59a zehazki. Jarraian, %32a ama zein aita direla azaltzen du eta %9a soilik aita. Familia hauetan, nahiz eta bakarrik emakumeen %11 etxeko anderea izan, kasuen %59an eskolako materialaz arduratzen dena bakarra da.

7. Taula. Haurren materialaz arduratu

HAURREN MATERIALAZ ARDURATU	3 URTE	4 URTE	5 URTE	GUZTIRA
AITA	1	3	1	5
AMA	8	14	12	34
BIAK	4	9	5	18
GUZTIRA	13	26	18	57

Iturria: Egileak egindakoa

12. Grafikoa. Haurren materialaz arduratu (%)



Iturria: Egileak egindakoa


Emakumearen rola azterketarekin amaitzeko, tutoreek egunez egun zein gurasoarekin komunikatzen den jakin nahi zen. Haurrak eskolara joaten ez diren bakoitzean gurasoak abisatzeko edo zalantzak eta komentarioak bidaltzeko mezu elektronikoa erabiltzen dute. Aipatzekoa da, mezuak bi gurasoei heltzen zaizkiela, horrela konfiguratuta dagoelako. Hala ere, etapako familia guztiak kontuan harturik betebeharrak hauek 6 aitek, 44 amek eta 7 familietan bi gurasoek egiten dituzte (8. Taula). Berriz ere, nabaria da komunikazioa tutorearekin gehienetan, laginaren %77an familiaren emakumearen lana dela (13. Grafikoa). Aitak, aldiz, ez dira asko inplikatu haien semeen tutorearekin egunerokotasuneko harremanetan, %11 delarik, eta azkenik, bi gurasoek tutorearekin mezu elektronikoak trukatu dituzte (kasuen %12).

8. Taula. Tutorearekin mezu elektronikoen bidez erlazionatu

EMAILAK TUTOREARI	3 URTE	4 URTE	5 URTE	GUZTIRA
AITA	2	3	1	6
AMA	9	19	16	44
BIAK	2	4	1	7
GUZTIRA	13	26	18	57

Iturria: Egileak egindakoa

13. Grafikoa. Tutorearekin mezu elektronikoen bidez erlazionatu (%)



Iturria: Egileak egindakoa

Datu hauek aztertu ondoren, ikusi daiteke emakumea lan merkatuan egon arren, aipatu diren seme-alaben eskolako betebeharrak familia gehienek kasuan haiek egiten dituztela. Historian zehar, amak semeak-alaben ardura izan du genero rolangatik eta eskola honetako familien kasuan horrela izaten jarraitzen du. Nahiz eta teoriak gaur egun lanak bi gurasoen artean banatzen dituztela esan, ez da guztiz horrela. Marko teorikoan azaldu bezala, aitek apurka-apurka inplikazio gehiago daukate baina familia hauek kontutan harturik, betebeharren banaketa zuzenagoa izan beharko zen.

Tutoretzetara %91en kasuan bi gurasoak joaten direla kontuan hartuta, haurren hezkuntzan inplikazioa eta erantzukizuna biena dela ondoriozta dezakegu. Eskola honetan, seme-alaben ebaluazio txostena jasotzeko eta sinatzeko momentuetan eta irakaslearekin bilerak izateko aitek gero eta inplikazio gehiago daukate. Hala ere, inplikazioa ez da bakarrik tutoretzetan neurtzen adibidez, Guraso Elkartean urtez-urte aldatzen diren lau ordezkari daude, urteetan zehar lau emakume izan direnak eta gelako ekintzetan familien inplikazioa eskatzen denean, normalean parte hartzailea ama da.

Hau guztia kontuan hartuta, esan daiteke EAEn egindako ikerketan lortutako datuak eta eskola honetan lortutakoak ez direla asko aldentzen.

6.3. Familiaren lanketa klasean


Arestian aipatu bezala, haurrek eskolan onartuak sentitzeko, haien familia errespetatzen dela ikusi behar dute. Eskola honetako txikienek ez dute familia mota askorik ezagutzen, 45 ume, %80ek familia nuklear funtzionala ezagutzen du bakarrik (9. Taula), familia mota horretako umeak izatearekin erlazionatu daitekeelarik; familien %79a tradizionala da eta eskola honetan familia lantzean azaltzen dena da (14. Grafikoa).

9. Taula. Haurrek ezagutzen dituzten familia ereduak

F. EREDUAK EZAGUTU	3 URTE	4 URTE	5 URTE	GUZTIRA
BAI, TRADIZIONALA BAINO GEHIAGO	0	6	6	12
EZ, BAKARRIK TRADIZIONALA	13	20	12	45
GUZTIRA	13	26	18	57

Iturria: Egileak egindakoa

14. Grafikoa. Haurrek ezagutzen dituzten familia ereduak (%)



Iturria: Egileak egindakoa.

Haurrek familiaren inguruan zer zekiten jakiteko asmoz, hiru jardura prestatu ziren. Esan beharra dago bost urteko gelan ikerketa sakonagoa egin zela (adinagatik eta bertan burutu zelako praktikaldia). Lehen ekintza, bost urteko haurrek modu librean nahi zuten familia margotzean zetzan. Ariketa honetan, orri zuri bat eman eta arbelean “Marrastu nahi duzuen familia” idatzi nuen. Hasi baino lehen, arbelean zegoen esaldia guztien artean irakurri genuen eta azalpen gehiagorik gabe, nahi zuten familia margotu zuten. Umeak margotzen hasi ziren eta galderak sortzen ziren. Adibidez, haien familia margotu behar zuten ala beste familia bat edo amiton-amonak agertu ahal ziren. Haur gehienek haien familia margotzu zuten, ez dutelako beste motako familia ezagutzen (2. Eranskina). Marrastu eta gero, haien familiako kideen izenak idatzi nahi zituzten, eta kideen identitatea argi izateko eta nola irudikatzen zituzten jakiteko modu interesgarria kontsideratu zen. Ariketa hau gela honetako tutoreak ez zuen era berean planteatu nahi, beraz haurrek marrazkiak erakusten zituztenean irakasleak komentarioak egiten zizkien. Beraz, bere presentzia eta komentarioak haurren adierazpen grafikoak baldintzatu zituztela aitortu behar da.

Marrazkietatik, guztiak familia nuklear funtzionala izateaz aparte, beste kontzeptu interesgarri asko ikus daitezke. Hasteko, soilik bost marrazkietan ama eta aita pareko tamaina daukate, zazpi marrazkietan ama handiago irudikatuta dago eta seieta aita. Gainera, gurasoen arropak irudikatzeko erabilitako koloreak genero estereotipoekin bat

datoz hamar marrazkietan (aita urdina eta ama arrosa edo ama koloretsua eta aita kolore ilunekin). Horretaz aparte, zazpi kasutan guraso eta anai-arrebez gain, familiako beste kideak agertzen dira: osaba-izebak, aitona-amonak edota lehengusu-lehengusinak.

Eskola honetako familia ereduak aztertzerakoan bost urteko gelan familia bateko gurasoak dibortziatuak daudela eta familia berreraiki bat dagoela ikusi da eta marrazkietan horrela adierazi dituzte. Gurasoak dibortziatuak dituen umearen marrazkian, aita eta ama bata bestetik aldentuta agertzen dira eta bi emakume gehiago (bi izeba amonak). Familia berreraikiaren umearen marrazkian bere ama, aita eta bera agertzen dira, bere aitaren beste bi semeekin. Amaitzeko, gela honetako ume batek hanka apurtu zuen eta marrazkiak egindako egunean gurgil-aulkian zegoen, marrazkian bere burua honela irudikatu zuen eta ikusi daiteke nola aulkia eramaten duen pertsona ama da, gutxienez egoera honetan haren zainketaz arduratzen zena.

Eskola honetako Haur Hezkuntzako geletan familiaren lanketa handia egiten dutela esan daiteke, baina soilik familia tradizionalarena. Hiru hilabetetan eskolako ikas materialak aztertu dira familia eredu aniztasuna bermatzen duten eta genero rolak eta estereotipoak dituzten ala ez aztertzeko. Kontuan hartzekoa da kristau eskola bateko materialak direla, beraz, balore erlijiosoak agertzen dira.

Praktikaldia burutu aurretik, gela hauetan hurrek entzuten eta irakurtzen zituzten ipuinak zaharrak ziren, balore zaharkituekin eta estereotipoz josiak (aita autoritatea eta indarra, ama zaintza eta babesa). Alde batetik, ipuin txokoan zituzten liburuetan familia zehazki lantzen zuten liburu bakarra zegoen, pasa den mendekoa eta familia tradizionala adierazten zuena: *Familia albuma* (3. Eranskina). Ipuin horretaz gain, hainbat liburutan familiak agertzen ziren zeharka eta behin eta berriro familia mota berdina agertzen zen. Bestetik, arbel digitalean entzuten zituztenak material berriak izan arren, beste ipuinen balore berdinak zituzten eta familia eredu erreplikatzeko ziren.

Esan bezala, lan honen ikerketa graduko hirugarren praktikaldian gauzatu zen, beraz, ikerketa hau praktiketako esku-hartzearen batera egin zen. Esku-hartze hori literatura eskaintza handitzean eta estereotipoak suntsitzean zetzan. Ikertutako eskolan familia ereduak lantzeko beharra zegoenez, hainbat ekintzen artean, ipuin txokoa oso baliabide egokia izan zen. Ipuinen bidez hurrek hamaika gai ezagutu eta haien errealitateak haratago doazen egoerak ezagutu ditzakete. Kasu honetan, familia eredu desberdinak ezagutzeko beharra zegoenez, ipuin txokoan hainbat liburu gehitu ziren familia eredu aniztasuna bermatzeko. Besteen artean, *Tango iritsita*, *hiru dira*, *Cloe queire ser mamá*, *Adivina cuánto te quiero*, *¡En familia!* eta *Arraroa* (3. Eranskina). Ipuin

hauen bitartez, hurrek familia eredu desberdinak eta seme-alabak izateko metodo anitzak ezagutu zituzten, errespetatzen zituzten bitartean.

Bideo eta filmei dagokienez, hurrek ez zuten hauetako asko kontsumitzen, beharbada, erlijio klaseetan edo ostiral arratsaldetan. Ipuin digital eta bideo guztiak oso zaharrak ziren eta gaur egun gizartean desagertzen ari diren baloreak eta balioak zituzten. Hala nola, film bateko animalia batek emakumearen lana etxea garbitzea zela esaten zuen, beste batean protagonistek mutilak ezin dutela negar egin esaten zuten. Ikusitako bideo erlijiosoetan familia tradizionala balioesten zen eta emakumeak haien senarrek esaten zutena ez egiteagatik zigortzen zituzten.

Hurrek familia eredu berriak ezagutzen ez zituztela ikusi ostean, familia berriak ikusterakoan zituzten erreakzioak behatu nahi ziren. Horretarako, hainbat familia ereduen marrazkiak (4. Eranskina) prestatu eta gelara eraman ziren, txokoak aprobetxatuz, irakaslea ez zegoen egun batean, irudiekin mahai batean jarri eta haurrak talde txikietan hurbiltzen ziren. Hurrek mahaian familia ereduen aniztasuna bermatzen zuten irudiak begiratzen zituzten eta irudietan agertzen ziren pertsona multzoak familia ziren edo ez galdetzen zitzairen.

Hurrek haien aurreiritzien araberakoak ziren era guztietako erantzunak eman zituzten (4. Eranskina). Alde batetik, familia monoparentalaren inguruan, mutil bat haur batekin ez zela familia bat esan zuten gehienek, aita bat bakarrik ezin zuelako bera bakarrik ume bat zaindu. Baina neska bat (ama) ume batekin familia zela oniritzen zuten. Honen ildoan, familia homoparentalak ikusten zituztenean, pareko erantzuna eman zuten, bi amak haien seme-alabekin familia bat zirela, baina bi mutil egoera berdinean ez zela familia. Bi erantzun hauek genero rolen menpe daudela ondoriozta daiteke, eta eskola honetan balore hori presentzia daukala kontuan harturik, ume hauek aurreiritzi horiek dituzte. Bestetik, seme-alabarik gabeko bikoteak ikusten zituztenean (bi neska edo neska eta mutila) batzuk ez ziren konturatzen bikote bakoitzeko neska bat haurdun zegoela eta haur gehienek ziurtasun osoz bikotea bakarrik ez zela familia azaltzen zuten, haurrak falta zirelako. Geroago, emakume bat haurdun zegoela azaltzerakoan bi kasuetan, ama eta ama zein ama eta aita, umea izatekoan familia zirela esan zuten. Hortaz, lau urteko haur gehienek argazkietako pertsona multzoak familiak ez zirela adierazten zuten, haien familien eredu zehatza ez zelako agertzen (aita, ama eta seme-alaba bat baino gehiago).

Honekin amaitzeko, ondorio gisa haurren erantzunak nahiko berdinak izan direla aitortu daiteke. Hurrei familiako argazkiak erakusterakoan, harridura aurpegia geratzen

zitzaien, eta irudi horiek haien buruko eskemak apurtzen zituztela nabaritzen zen. Hala ere, galderak egiten eta elkarrizketak bideratzen emandako imputarekin, hurrek gustura zeuden eta elkarrizketa interesgarriak atera ziren. Bost urteko guztiek interesa adierazi zuten, baina lau urtekoek, espero nuen bezala, egoera ulertzea kostatzen zitzaien eta batzuk ez zuten hitz egin.

Familiaren lanketa zaharkituak eta genero estereotipoen zeharkako lanketak eragina du haurren eguneroko bizitzan eta egiten dituzten iruzkinetan. Gabonetan, Olentzero etorri zenean, haur batek Mari Domingi non zegoen galdetu zion. Olentzerok emaztea baserriaz arduratzen eta etxeko lanak egiten ari zela erantzun zion, bera haiekin eskolan zegoelako eta haurrak hauxe esan zuen: noski Mari Domingi emakume bat delako, eta emakumeek gauza horiek egiten dituzte.

Laburbilduz, eskola honetan familia ereduaren aniztasuna bermatzen ez dela argi ikusten da, gaur egun gure gizarteak eskatzen duen ezagutza eta errespetua falta delako. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, batez ere, beharrezkoa da familia ereduak lantzea aniztasuna errespetatzen ikasteko.

6.4. Irakaslea

Irakaslea, gurasoekin batera, haur baten erreferente handienetarikoa bat da, bereziki Haur hezkuntzan. Marko teorikoan aipatu den bezala, curriculum ofizialaz aparte, curriculum ezkutua dago eta azken honen bidez, hurrei aurreiritziak eta estereotipoak transmititu ahal zaizkie. Hortaz, haurren presentzian egiten diren komentarioak aldeztatik aurretik pentsatzea ezinbestekoa da, baita generoen estereotipoak suntsitzeko irakasleak liburuen edo gelako materialen azterketa edo lanketa egitea ere.

Haur Hezkuntzako gela hauen hiru tutoreak emakumeak dira. Hiru urteko umeen irakaslea eskolaren ikasle-ohia da, bertan 8 urtez klaseak ematen daramana. Lau urteko gelako irakaslea aldiz, 10 urte darama gela honetan eta 5 urteko tutorea aldiz, praktiketako tutorea izan dena, 42 urte darama eskola honetan 5 urteko gelako haurrak hezitzen. Horrek esperientzia itzela suposatzen du, baina gizarteak jasaten duen aldaketei egokitzeko beharra ere.

Bost urteko tutoreak gelako familia ereduak ongi ezagutzen ditu, eskola txikia denez, heziketa hurbila eskaintzen delako. Dena den, egunerokotasunean, ez ditu familia desberdinak kontuan hartzen ezta genero berdintasuna ere ez. Hau da, hurrek beharren bat dutenean (amantalaren botoia josi behar da, hurrengo egunean fruta

eraman, bere bila joan...) irakasleak amaren betebeharra dela adierazten du horrelako esaldiak erabiliz: *Ama zure bila etortzen denean eman hau; botoia gordeko dugu eta amari esango diot josi behar duela; gaur frutaren txartela eramango duzu, esan amari fruta gaur erosi behar duela...* Haurrak txarto portatzen direnean, aldiz, irakasleak aita aipatu egiten du, adibidez, *zure aitari esango diot zer egin duzun eta ikusiko duzu; zure aitari azaldu beharko diozu egin duzuna...* Horrela, aitaren rola autoritatea, disziplina eta batzuetan beldurra dela adieraziz. Irakasle honek ez ditu genero rolak bakarrik gurasoengan islatzen, umeengan ere. Adibidez, neska batek fitxa bat txarto egin zuelako hurrengo esaldia esan zion: *Horrela jarraituz gero, ez duzu ezkontzeko ere balioko.*

Horretaz gain, hurrek zenbait kasutan bikoteen inguruan hitz egiten zuten eta emakumea eta gizonez sortuta ez dagoen bikoteak sortzen dituztenean irakasleak behin eta berriro hori ez dela posible azaltzen zien. Zenbaitetan behatutako zoritxarreko egoera izan da. Lehenengo aldia, patioan izan zen. Bi ume (mutilak) bikotea zirela esaten zuten musuak ematen zituzten bitartean (masailean). Irakasleak egoera ikusterakoan haiengana hurbildu eta bi umeak bananduz, hauxe esan zion: Ez da posible mi mutil bikotea izatea, egin behar duzuen andregai bat bilatzea da. Bigarren aldia, neska batek marrazki batean bi emakume egin zituen eta haien ezkontza zela azaldu zuen (5. Eranskina). Orduan tutorea lagunak izango zirela esan zion, baina bikotea ez, hori ez delako gertatzen. Neska lehen momentuan harrিতa gelditu zen, baina gero tutoreak esandakoa onartu zuen eta haren klase-kideei bi neska horiek lagunak zirela azaldu zien. Hurrek eskolan ematen dituzten ordu gehienak haien tutoreekin egoten dira irakasleak esandakoa ez badu aniztasuna bermatzen, hurrek ez dute aniztasuna errespetatuko. Familiaren lanketan irakasleak ezinbesteko funtzioa betetzen dute.

Erljio klaseetan duten ikas-materiala ez zuela aniztasuna eta berdintasuna bermatzen argi ikusi zen. Hala ere, material horiek eta haien aplikazioa, neurri batean, irakaslearen menpe geratzen dira. Ikasgai honetan, zenbait egoera latz bizi ziren. Adibidez, egun batean irakasle bat hurrekin agertzen zen marrazki bat koloreztatu behar zuten hurrek (6. Eranskina). Irakaslea emakume bat bezala irudikatuta egon arren, haur batzuek irakasle horri bere ingeleseko irakaslearen izena jarri zioten, Jon. Erljioko irakasleak (3 urteko tutorea) hori ikusi zuenean, marrazkian irakaslea neska bat zela oihuka hasi zen hurrei ondo ikusten zuten edo ez galdetuz eta “Jon” idatzi zuten marrazkietan marratu zuen, hurrei haien irakasleen izenak jartzeko aginduz.

Laburbilduz, aztertutako etapako hiru irakasleei familiaren gaia hurrekin lantzea asko gustatzen zaie, haurrentzat garrantzitsua delako eta haien ongizatea lortzeko familia eta eskola bateratuak egon behar direla dakitelako. Izan ere, eskola honetan familia inguruan dituzten materiala guztiak familia tradizionala azaltzen dute eta ez dute inola ere aniztasuna bermatzen ez genero rolen kasuan, ez familia ereduaren kasuan, zaharkituak baitaude. Eskola honetan etorkizunean gizartean murgilduak egongo diren helduak hezi nahi dituzte, baina balore eta ideia zaharkituak transmititzen dituzte, estereotipoz josita eta gaur egungo gizartea kontuan hartu gabe.

7 ONDORIOAK

Lan honetan ikusi den bezala, azken hamarkadetan gizartean gertatu diren aldaketek eragina izan dute familia-erakundean, izan ere, dibertsifikatu egin dute. Lortutako emaitzei erreparatuz, gizartean familien aniztasuna dago eta familia eredu tradizionalak gero eta presentzia gutxiago dute, nahiz eta oraindik gehiengoa izan. Hortaz, familia guztiak ez dira ama, aita eta seme-alabez osatutakoak. Honi esker, eskoletan egoera desberdinak bizi dituzten umeak aurki daitezke, haur bakoitza bere egoera baitu. Adibidez, metodo ezberdinen bidez jaiota (subrogazioa, in-vitro...), guraso baten falta izan, guraso dibortziatuak izan eta bi etxeetan bizi, etab...

Ikertutako familien %79ak familia eredu tradizionala du; hala ere, haurren %21a beste familia-mota batekoak dira, eta ez dute inolako presentziarik eskolan. Beste era batera esanda, ikasleen %21ek ez du familia tradizionalik, eta, ondorioz, ez daude errepresentatuak aztertutako eskola-diskurtso eta -materialetan, eta, horrela, desberdintasun soziala sortzen da. Haurrak errespetatuak eta baloratuak sentitzeko bere errealitatea eskolan islatuta ikusi behar dute, familia ereduak eskolan presentzia bera izaten. Modu honetan, familia eredu tradizionalerako haurrek familia mota guztiak errespetatzen eta baloratzen ikasiko dute eta beste familia ereduak haurrak baloratuta sentituko dira, haien auto-estimua eta segurtasuna garatzeko ezinbestekoa delarik. Oro har, ikastetxe honek gizartean erabat egokituta egongo diren haurrak hezten ditu, baina horretarako haurrak txikitatik errespetua eta berdintasunaren aldeko balioak eskuratu beharko lituzkete.

Esan beharra dago eskolan egindako azterketa ez duela gaur egun gizartean dagoen arazoaren ikuspegi orokorra ematen. Halaber, aztertutako 57 familien bizitza errealean informazioa eta eskolan familiari ematen zaion trataera ikusteko aukera egon da. Dena den, testuingurua oso zehatza da, eskola kristaua denez, ideologia hori duten

familiak dira eta umeak balore horiekin hezten dituzte. Beharbada, ikerketa herriaren beste eskola batean eginez gero, adibidez, eskola publikoetan, datuak desberdinak izango lirateke.

Ikerketako helburuei dagokienez, lehenengoari erantzunez, familia motak deskribatzeko, historian zehar familiaren definizioari forma eman dioten erakunde, dokumentu ofizial eta hainbat autore kontsultatu dira. Horien bidez, historian zehar familiaren erakundea asko aldatu dela egiaztatu ahal izan da. Era berean, dokumentu ofizialek eta hiztegiek ez dituzte familia-mota guztiak babesten; gizarteko familiarik arruntena aipatzen jarraitzen dute aniztasuna eta inklusioa bermatu gabe. Hortaz, hainbat autoreen familia ereduen sailkapena aztertu ondoren, Lucía Aguadoren sailkapen irekia egokiena dela esan daiteke, gaur egungo gizartean murgilduta dauden familiak agertzen baitira.

Bigarren helburuari dagokionez, haurrek duten familia ereduaz aztertzea, ikertutako haurren % 80ak familia tradizionala ezagutzen du bakarrik eta %20ak eredu horietatik aparte gutxienez beste bat. Ikusi denez, haurren familiaren jakintzan faktore asko eragiten dute. Hasteko, ume gehienek berea ezagutzen dute, gehienetan gizarteko ohiko familia dena. Kasu batzuetan, batez ere haur txikienetan, egozentrismoa gainditu ez dutenez, ez dute familiaz hartzen beren patroiei jarraitzen ez dion eredurik. Gainera, familia baten marrazkia egitean, haurrek familia-eredu tradizionala irudikatu zuten, beste familia ereduren bat zuten haurrek izan ezik. Egia da familia mota desberdinen argazkiak erakustean, haur gehienek oso ondo erreakzionatu zutela, ikus berri zituzten patroien inguruko ezjakintasuna adieraziz eta horiekiko interesa erakutsiz.

Hirugarrenik, eskola honetan hurrekin familiaren lanketa nolakoa zen jakin nahi zen. Horretarako, hainbat gelako materialak eta irakasleen kudeaketak nolakoak ziren aztertu ziren, eta aniztasuna bermatzen ez dela ondoriozta dezaket. Gelako materialetan, haien egunerokotasunean ikusten dituzten filmetan eta liburuetan soilik familia tradizionala agertzen da pasa den mendeko materialak direlako; zaharkituak daude urte horietako gizartearekin bat egiten dutelako. Hala ere, material horiek irakaslearen mende geratzen direla behatu da, hau da, material horiek euskarri fisikoak dira, baina irakasleak egiten dituen imputek horiek baldintzatzen eta osatzen dituzte.

Aurrekoaren ildoan, haurrek ikasgelan kontsumitzen dituzten zuzeneko zein zeharkako edukiak erabiltzen diren heinean, eragin positiboa edo negatiboa izan dezakete. Zentzu horretan, tutoreek berdintasuna eta aniztasuna sustatzen badute,

haurrek balio horiek eskuratuko dituzte eta beren eguneroko bizitzako une askotan aplikatuko dituzte konturatu gabe. Irakasleak, berriz, ez baditu balio horiek sustatzen, hala nola inklusioa, errespetua eta aniztasuna, haurrei aurreiritzi horiek transmitituko dizkie. Horregatik, ikertutako umeen egunerokotasunean estereotipoz jositako elkarrizketak zeuden. Gainera, ikerketa balio kristauak dituen ikastetxe batean egin dela eta aztertutako irakasleak 42 urte daramala gela berdinean, ideologia kontserbadorea ulergarria izan daiteke eta irakaslea ez da gaur egungo gizartera eguneratu eta balio zaharkituak transmititzen ditu.

Azkenik, emakumearen rola familia eredu desberdinetan nolakoa den aztertzeari dagokionez, hainbat kontzeptu ondoriozta daitezke. Hasteko, marko teorikoan azaldu bezala, gero eta emakume gehiago lan merkatura sartzen ari dira eta horren ondorioz, etxeko lanen eta haurren zainketa bi gurasoen artean banatzeko beharra sortu dela. Egia da urteetan zehar egoera pixkanaka-pixkanaka parekatzen ari dela, baina oraindik ere emakumeek, nahiz eta etxetik kanpo lan egin, etxeko lanen eta haurren erantzukizun handia daukate. Gainera, haurren ongizatea lortzeko eskola eta familiak elkarrekin egon beharko dira. Izan ere, ikertutako gurasoen kasuan inplikazio maila ez da parekoa, amak baitira gehienetan haien seme-alaben eskolarekin harremanak izaten dituztenak.

Laburbilduz, lan honetan zehaztutako helburuak landu ostean familia eredu berriak zehazterakoan, agerian dago estatuak argitaratutako dokumentu ofizialetan familia mota asko ez dituela babesten. Eskola arloan, ikertutako eskolako ume gehienek soilik familia tradizionala ezagutzen zutela (materialak eta irakasleak erabiltzen dutena) eta oraindik ere emakumearen rola gizartearen genero rolei lotuta dagoela behatu da. Beraz, eskolak ahal duen heinean, familia eredu berrien ezagutza ematen (familia ereduak presentzia berdina izatea) eta genero rolak baztertzen saiatu daiteke, adibidez, gurasoen pareko inplikazioa eskatuz; gaur egun ikastetxe batzuk, tutoretzetara zein ekintzetara bi gurasoen bertaratzea exijitzen dute. Izan ere, datu ofizialetan ikusi den bezala, urteak pasa ahala emakumearen rola aldatzen doa eta etxeko lanak zein umeen zaintza bikotekideen artean banantzen dituzte.

Beraz, gizartean gero eta familia-aniztasun gehiago dagoenez eta familiak aldaketa ugari jasan dituzenez, eskolak premia horiei erantzutea guztiz beharrezkoa da. Hortaz, eskolan genero estereotipoak suntsitu beharko dira eta curriculum ezkutua kontuan izan, haurrek irakasleen estereotipoak eta aurreiritziak barneratu ez dezaten.

8 MUGAK ETA ETORKIZUNeko IKERKETA-ILDOAK

Azterlan honetako ondorioek agerian uzten dituzte zenbait kontu garrantzitsu, azterketa sakonago bat egitea merezi dutenak. Horietako bat hurrei familia mota guztien berri ez ematea da, hau da, bizi diren gizartearen errealitatea ez erakustea. Egiaztatu ahal izan da gelan familia zuzenean lantzen denean aurreko mendeko familia tradizionalaz bakarrik hitz egiten dela, eta are gutxiago, ikastetxeko irakasleek ez dutela kontuan hartzen azken urteetan familia tradizionalak gizartera egokitzeko izan dituen aldaketak. Gainera, gaia zeharka aipatzen denean, balio berak agertzen dira. Praktikaldian egindako esku-hartzean ipuin txokoa sortu zen eta bertan familia aniztasuna bermatzen dela aitortu daiteke. Dena den, hori aldatu ahal izateko, beharrezkoa izango litzateke denbora gehiago eta funtsezkoa izango litzateke irakasleek zenbait materialen aplikazioa aldatzea, hala nola, materialena edo jostailuena. Horrela, pixkanaka, neurri handiagoan edo txikiagoan, genero rolak eta estereotipoak desagertuko dira, aniztasuna irudikatuz.

Haur Hezkuntzako 57 familien azterketaren mugak ikastetxea kristau eskola izatea eta irakasleek ikerketa baldintzatu dutela izan da. Adibidez, etxeko lanak nork egiten dituen zuzenean galdetzeari ezetz esan zutelako eta hurrek familiaren inguruko marrazki librea egitean, tutoreak behin eta berriro familia tradizionalaren azalpenak ematen zizkien. Beraz, etorkizunean horrelako ikerketa-ekintzetan hurrekin bakarrik egotea egokiena izango litzateke. Izan ere, hurrei familia eredu berrien irudiak erakusterakoan, ez zegoen beste irakaslerik eta ekintza baliagarria izan zen.

Familiaren gaia oso garrantzitsua da gizartearentzat eta gaur egungo hezkuntzarako. Horregatik, interesgarria izango litzateke aztergai lagina zabaltzea, informazio gehiago lortzeko eta beste ikuspegi batzuk ezagutzeko, orokorrean testuingurua zabaltzeko. Adibidez, gainerako ikastetxeko familien informazioa bildu daiteke edo herriko beste eskoletan Haur Hezkuntza etapako familiak ikertu. Lerro berri horiekin emaitza aberatsagoak lortuko lirateke, eta agian EAE-ren datuekin nolabaiteko parekotasuna lortuko litzateke. Azkenik, interesgarria izango litzateke, ere datu kualitatiboak biltzeko beste tresna batzuk erabiltzea, informatzaile jakin batzuegandik behar den informazioa zabaltzen lagunduko dutenak, adibidez, inkestak edo elkarrizketak zuzenean familiekin eginez.

9 ERREFERENTZIAK

- Abotiz, M.T.(2009). Adierazpena eta komunikazioa. Haur literatura. Madril: Altamar.
- Aguado Iribarren, L. (2010a). "Familia ereduak gaurko eskolan". *Tantak*. 22zbk.127-148.
- Aguado Iribarren, L. (2010b). Escuela inclusiva y diversidad de modelos familiares. *Revista Iberoamericana de Educación*, 6 (53), 1-11.
- Anderson, D. eta Hamilton, M. (2005). Gender Role Stereotyping or Parents in Children's Picture Books: The Invisible Father. Danville: Springer
- B.O.E. (1989). *Constitución Española* (311zb.). Honako webgune honetatik berreskuratuta: [https://www.boe.es/eli/es/c/1978/12/27/\(1\)/con](https://www.boe.es/eli/es/c/1978/12/27/(1)/con)
- B.O.E. (1989). *Real Decreto de 24 de julio de 1889 por el que se publica el Código Civil* (206zb.). Honako webgune honetatik berreskuratuta: [https://www.boe.es/eli/es/rd/1889/07/24/\(1\)/con](https://www.boe.es/eli/es/rd/1889/07/24/(1)/con)
- Bolívar, A. (2006). Familia y escuela: dos mundos llamados a trabajar en común. *Revista de Educación*, (339), 119-146.
- Carrasquer, P., Borrás, V. eta Torns, T. (2004). La conciliación de la vida laboral y familiar ¿un horizonte posible?. *La sociología del trabajo*. 50zbk.
- Corbin, J.A.(2018). Recursos, nutrición y alimentación sanitaria. Los 8 tipos de familias (y sus características). Honako web orritik berreskuratuta: <https://psicologiaymente.com/social/tipos-de-familias>
- Euskal Estatistika Erakundea. (2004). *Familiak lurralde-eremuen, motaren eta batz besteko tamainaren arabera*. 2001. Honako webgune honetatik berreskuratuta: https://eu.eustat.eus/elementos/tbl0004449_e.html
- Euskal Estatistika Erakundea. (2008). *Azken 10 urteetan %15 hazi da familien kopurua*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: http://eu.eustat.eus/elementos/not0004453_e.html
- Euskal Estatistika Erakundea. (2012). *Zazpi gizonetik batek bere bikotekideak bezainbeste denbora ematen du seme-alabak zaintzen*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: http://eu.eustat.eus/elementos/not0009341_e.html

Euskal Estatistika Erakundea. (2016). *Euskal AEn emakumeek bi aldiz denbora gehiago pasatzen dute etxeko lanetan gizonen baino*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: http://eu.eustat.eus/elementos/not0013296_e.html

Euskal Estatistika Erakundea. (2017a). *Etxetik kanpo lanean ari diren euskal emakumeek 4,5 ordu ematen dituzte egunean adin txikiko seme-alabak zaintzen*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: https://eu.eustat.eus/elementos/not0014110_e.html

Euskal Estatistika Erakundea. (2017b). *Jaiotzak %4,5 gutxitu ziren Euskal AEn 2017ko bigarren hiruhilekoan*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: https://eu.eustat.eus/elementos/not0013296_e.html

Euskal Estatistika Erakundea. (2018). *Familiak erreferentziako pertsonaren mota eta adinaren arabera (milakotan). 2016*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: https://eu.eustat.eus/elementos/tbl0004449_e.html

Euskal Estatistika Erakundea. (2019a). *Euskal AEko biztanleria jaiotze urteari jarraiki, Lurralde Historiko eta sexuaren arabera. 2019/01/01*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: https://eu.eustat.eus/elementos/tbl0011424_e.html

Euskal Estatistika Erakundea. (2019b). *Euskal AEn bizi diren amengandik bizirik jaiotak, hilen, lurraldearen eta jaiotza hurrenkeraren arabera*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: http://eu.eustat.eus/elementos/tbl0000017_e.html

Euskal Estatistika Erakundea. (2020). *Familia*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: https://www.eustat.eus/documentos/opt_0/tema_395/elem_1755/definicion.html

Euskaltzaindia. (2020). *Familia*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?sarrera=familia&option=com_hiztegiabiltatu&view=frontpage&Itemid=410&lang=eu&bila=bai

Eusko Jaurlaritz, Haur Hezkuntza. (2016). *237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa*. Honako web orri honetatik berreskuratuta: <http://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2016/01/1600142e.pdf>

Hegel, G.W.F. (1988) *Principios de Filosofía del Derecho*. Barcelona, Edhasa.

- Kñallinsky Ejdelman, E. (2003). Familia-escuela: una relación conflictiva. *El Guiniguada*, (12), 71-93.
- Lévi-Staruss, C., Spiro, M.E. eta Gough, K. (1974). *Polémica sobre el Origen y la Universalidad de la Familia*. Barcelona: Anagrama.
- Lisón, C. (2007). *Introducción a la antropología social y cultural*. Madrid: Akal
- López, F., Díez, M., Morgado, B. eta González, M.M. (2008). *Educación infantil y diversidad familiar*. Sevilla: Universidad de Sevilla
- Marshall, C. eta Rossman, G. (1989). *Designing Qualitative Research*. California: SAGE Publications
- Meill, G. (2006). *Padres e hijos en la España actual*. Barcelona: «La Caixa» Fundazioa.
- Moriña, A. (2010). Trazando caminos juntos para el desarrollo de la educación inclusiva. *Revista Inclusão*, 5(1), 112-123.
- Palacios, J. eta Rodrigo, M. J.. (2001) (Koordinatzaileak). *Familia eta giza garapena*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Palacios, J. eta Rodrigo, M.J. (1998). La familia como contexto de desarrollo humano. En M.J. Rodrigo y J. Palacios (Coords.), *Familia y desarrollo humano* Madrid: Alianza.
- Real Academia Española. (2020). *Familia*. Honako webgune honetatik berreskuratuta: <https://dle.rae.es/familia>
- Schlesinger, B. (1985). *The One-Parent Family in the 1980's Perspectives and Annotated Bibliography*. Toronto: Toronto University Press.
- Taberner, J. (2009). *Soziologia eta hezkuntza: hezkuntza-sistema gizarte modernoetan: funtzioak, aldaketak eta gatazkak*. Bilbo: UPV/EHU.
- Torío López, S. (2004). Familia, Escuela y Sociedad. *Aula Abierta*, (83), 35-52.

10. ERANSKINAK

10.1. 1. Eranskina: Dimentsioen txantiloia

DIMENTSIOAK HAUR BAKOITZA

- Haur bakoitzaren familia eredua.

- Familia eredu tradizionala Bai/ Ez
- Beste eredu batekoa Zein? _____
- Zenbat anai-arreba dira?

- Haurrek ezagutzen dituzten familia eredu ezberdinak

- Haurra familia eredu tradizionaletik aparte, beste ereduren bat ezagutzen du Bai/ Ez

- Emakumearen rola

- Amak etxetik kanpo lan egiten du? Bai/ Ez
- Nor doa eskolara haurra uzteko eta hartzeko? _____
- Etxeko lanak nork egiten ditu? _____
- Tutoretza bileretara nor doa? _____
- Haurren materialaz nor arduratzen da? _____
- Eguneroko harremana tutorearekin nork dauka (emailak)? _____

GELA OSOA

- Familiaren lanketarako erabiltzen diren materialak

- Familia ereduaren aniztasuna bermatzen dute? _____
- Literaturan Bai/ Ez _____
- Filmetan Bai/ Ez _____
- Material batean familia eredu berriren bat agertzen denean galdetzen dute edo interesa adierazten dute? _____
- Zein da haien erreakzioa/erantzuna? _____

- Irakaslea

- Bere gelako haur guztien familia ereduak ezagutzen ditu? Bai/ Ez
- Irakasleak haurrekin izaten dituen elkarrizketetan familia eredu tradizionalako gurasoak aipatzen ditu? (Adibidez: Nor etorriko da zuen bila ama edo aita?) Bai/ Ez _____
- Gaia lantzeko zelako estrategiak erabiltzen dituzu? _____
- Egunerokotasunean? _____
- Gaia konkretuki lantzerakoan? _____

10.2. 2. Eranskina: Familiaren marrazkiak (Bost urteko gela)











10.3. 3. Eranskina: Ipuinak


- Gelan zegoen familiaren inguruko liburua: *Familia albuma* liburua



- Esku-hartzean gelan irakurritako liburuak: *Tango iritsita, hiru dira*, *Cloe queire ser mamá*, *Adivina cuánto te quiero*, *¡En familia!* eta *Arraroa*.



10.4. 4. Eranskina: Familia eredu en argazkiak eta haurren iruzkinak



Familia homoparentalak (bi neska edo bi mutil seme-alabarekin):

- *Bi ama seme-alabekin familia da baina bi aita seme-alabekin ez; aitek asko lan egiten dutenez, ez dute denbora seme-alabak zaintzeko, ez da familia bat.*
- *Bi ama ume batekin familia da, baina arraroa da.*
- *Bi aitek bakarrik ezin dute ume bat zaindu.*

Familia gurasobakarra (neska edo mutila seme-alabekin):

- *Ama bere haurrekin familia da baina aita bakarrik ez; aitek ez daukate denbora haurrekin egoteko.*
- *Aita umearekin familia da etxean ama egongo delako; ume bat izateko aita eta ama behar dira.*

Pertsona bakarreko familiak (neska edo mutila):

- *Ez da familia, pertsona bat da. (haurrak ez dituztelako)*

Seme-alabarik gabeko familiak:

- *Ez da familia, haurrak ez dituztelako.*

- *Ez da familia, bi pertsonak lagunak dira.*

Bikote haurdunak (bi neska edo neska eta mutila):

- *Seme-alaba bat izango dute, familia da.* (Bi argazkietan emakume bat haurdun zegoela konturatzean)

Familia berreraikiak (bi argazkien familiak elkartu eta hedatua sortu):

Hasieran ez zuten familia eredu hau ondo ulertzen baina ulertu zutenean familia handia zela azaltzen zuten gehienek.

- *Familia handia da baina aita, ama eta haurrak dituenez, familia da.*

Adopzio-familiak (Argazkien haurrak adoptatuak zirela azaltzerakoan)

- *Bai, familia da. Gurasoek bere semea maitatzen dute.*

Kontzeptu interesgarriak:

- Haur gehienek neska eta amaren arteko diferentzia egiten zuten; emakume bat haur batekin agertzekotan ama deitzen zioten eta umerik gabe egoterakoan, nahiz eta haurdun egon, neska deitzen zioten.

- Lehenengo momentuan haur gehienek bere familia eredu ez zena ez zuten familiazat onartzen, baina ekintza garatu heinean hurrek hausnarketa interesgarriak egin zituzten.

10.5. 5. Eranskina: Haur baten marrazkia



10.6. 6. Eranskina: Erijiyo klaseko fitxa.



